

Kontzeju

www.ñati.eus



Berria Ñati



@BerriaÑati



Kolatan



Ñati Irratia

Ñati Udal aldizkaria | 2018ko apirila | 282. zenbakia



DELIA



Txirindularitzako lehen planora itzuli da

EUSKADI

Munduko talde onenekin lehiatzen ari da Itzulian,
Jon Odriozola onatiarraren taldea



> ERREPORTAIA Basurdeen gainpopulazioa arazo iturri (2. orria)



**EHUNDIK GORA BASURDE
EHIZATU DITUZTE AURTEN
OÑATIKO INGURUETAN**

Basurdeen gainpopulazioa

ARAZO ITURRI

Kontzeju | 2 | peñik

AZKEN URTEOTAN ASKO UGARITU DIRA BASURDEAK, ETA, ONDORIOZ, BAITA BELARDI ETA SOROETAN ERAGITEN DITUZTEN KALTEAK ERE. BASERRITARRAK HASERRE DAUDE. EHIZA DA BASURDEEN POPULAZIOA KONTROLATZEKO ERABILTZEN DEN NEURRI BAKARRA, ETA SEKULA BAINO GEHIAGO HARRAPATU BADITUZTE ERE, EZ OMEN DA NAHIKOA.

Azken bost-sei urteetan asko hazi da basurdeen populazioa. Urtero %9, Gipuzkoako Foru Aldundiko iturrien arabera. Ez omen da hemengo arazoa bakarrik; antzekoa da egoera Euskal Herri osoan, eta baita

gure muetatik kanpo ere.

Eta baserritarrak kezkatuta eta haserre daude. Basurdeak txikizio larriak eragiten ditu belardi eta baratzetan, eta neurri eraginkorrak esijitzen dizkiote aldundiari.

Basurdeak ez dauka etsai naturalik basoko ekosisteman eta, gaur gaurkoz, ehiza da ugaztun hauen populazioa kontrolatzeko erabiltzen den neurri bakarra. Diputazioak eta Ehiza Federazioak hitzarmena sinatuta dute kontrol lan hori egiteko. Hala, iraileko lehen asteburuan hasi eta martxoan amaitu arte, ehizaldiak egiten dira larunbat, igande eta jai egun guztietan. Eta basurde kopurua goraka doala ikusita,

Etxe-Aundi
Hotela Jeltzen **
Tel. 943 78 19 56
www.etxeaundi.com



Ondoko argazkietan ikusten den moduan kalte handiak eragiten dituzte basurdeek belardietan

ostegunetan ere ehizatzeo baimena ematen hasi zen iaz diputazioa.

Aurten (irailetik martxora arte) 1.600 inguru basurde hil dituzte Gipuzkoan, eta orain dela dozena bat urtera arte nekez harrapatzen ziren 400. Beraz, garbi dago sekula baino gehiago ehizatzen dela, baina ez omen da nahikoa. Basurde populazioak goraka jarraitzen du, aldundiak berak aitortzen duenez. Ehiztariak txosten bat egiten dute ehizaldi bakoitzaren ostean, hildako eta ikusitako basurde kopuruen berri emanez, eta zenbaki zehatza ematea zaila bada ere, Gipuzkoan 3.000tik gora basurde daudela kalkulatu da.

Baserritar eta abeltzainek uste dute zenbait lekutan ehiza ez dela nahikoa arazoari aurre egiteko, eta bestelako neurriak eskatzen dituzte gainpopulazioa kontrolatzeko. Gainera, basurdeek eragindako kalteen kudeaketarako protokoloa berri- eta betetzea eskatzen dute.

OÑATIN 5 KUADRILLA

Oñatin 5 kuadrilla aritzen dira basurde-ehizan, bi taldetan batuta; denera 75 bat ehiztari. Herri inguruko mendi-basoak 5 zonatan banatuta dauzkate, eta astebururo egiten dituzte uxaldiak (batidak), guneak txandakatu.

(Hurrengo orrira)



Goiko irudian, Oñatin aurten ehizatu duten aporik handiena (117 kilo). Beheko argazkian, basurde baten letaginak. Behe masailekoak oso luzeak izaten dira (20 zm.-raino) eta goiko masailekoak laburragoak



Aurten, 100dik gora basurde ehizatu dituzte bi kuadrillen artean. Urtetik urtera gehiago harrapatzen dituzte (duela sei urtera arte 40 hiltzen zituzten, asko jota), baina, hala ere, ez omen da nahikoa. Halaxe esan zieten ehiza federazioarekin egindako azken bileran.

BALDINTZA ONAK

Jana nahi beste eta gordetzeko lekuak ere bai. Horiek omen dira basurdea ugaritzeko arrazoi nagusiak. Basoko asko utzita daude, eta ingurune sastrakatsu hori dute gustuko habitata. Egunez ezkutatuta egoten dira, baina gabaz kilometro asko egiten dituzte basurdeek.

Denetarik jaten dute; sus-traiak, frituak, intsektuak... Oso usaimen ona dute, eta lur azpiko jana usaintzeko gai dira.

Talde txikietan ibili ohi dira. Arrak periferian ibiltzen dira, eta emeek gidatzen dute taldea. Azaroa eta abendu artean ernaltzen dira, eta handik lau hilabetera 2-6 kume jaioko dira. Heldutasun sexuala bi urterekin iristen zaie, baina, azkenaldian urtebeterekin ere hasi omen dira kumeak edukitzen. Gaitasun handia dute ugalketarako, eta 19 urte arte bizi daitezke.

Maximo Zumalde / baserritarra



“Desastre haundixa egin doskue basurdiak”

Kezkatuta eta haserre mintzatu zaigu Maiña baserriko Maximo, basurdeek egindako kalteez galdetuta. “Etxe inguruko zelai danak hondaketan dittue. Zelai dana harrotu egitten daue, eta han ez dago ez larran egitterik, ez makiñarik sartzerik. Gaiñera, alperrik da, hurrengo egunian berriz be hondaketan daueillako”. Arazoa larriagotuz doala dio Maximok. “Bai, urtetik urtera haundixaguak dira kaltiak. Aurten, etxe osteraiño be etorri dira basurdiak. Asko ugarittu da basurdia, eta orkatza be bai”. Administrazioarekin ere keXu da Maximo. “Birritan deittu dogu aurten, kaltien parte emuteko, baiña oraindik ez da iñor etorri gurera. Sikiera laguntzatxo bat emungo baleue lasto fardo batzuk erosteko ganaduarentzat!”

Luis Ugarte / basozaina eta ehiztaria



“Ehizarekin bakarrik ez da basurdeen arazoa konponduko”

Bazozaina da Luis, eta basurde-ehizan ere aritzen da, eta ondo ezagutzen du basurdearen inguruko problematika. “Orain dela sei urte 300 bat basurde ehizatzen ziren urtean Gipuzkoan, eta aurten 1.600 inguru, eta hala ere populazioak ez du behera egiten”.

Ehizarekin bakarrik ez da basurdeen arazoa konponduko, Luisen ustez. “Batida edo ehizaldiak eraginkorrak izateko 20-22 laguneko taldea behar da, eta oso zaila da hainbeste jende batzea gaur egun; ehiztari kopurua erdira jeitsita dago. Gainera, basurdeen populazioa ez da finkoa, alde batetik bestera ibiltzen dira eta, beraz, zona bat garbituta ere, beste leku batetik etorriko dira, baldintza egokiak baldin badaude”.

Basurdeen jokabidean ere aldaketak somatu dituztela dio Luisek. “Kumeak edukitzeko adina aurreratzen ari dira; urtebetekin hasi dira kumeak edukitzen eta, beraz, oraingo erara behintzat hori ezin da kontrolatu. Zerbait gaizki egiten ari gara, eta beste neurriren bat hartu beharko da. Ehiza ez da nahikoa”.

25 urte basurde ehizan



Talde lana oso garrantzitsua da basurde ehizan

Hogeita bost bat urte dira Oñatin basurde ehiza modu antolatuan eta kontrolatuan egiten hasi zela. Gaur egun bost kuadrilla aritzen dira, bi taldetan banatuta; 75 bat lagun guztira. Irailean hasi eta apirilera arte asteburu eta jai egun guztietan egiten dituzte ehizaldiak, diputazioaren baimenarekin. Hamabost bat lagun bildu ohi dira. Goizeko 8ak aldera abiatzen dira, txakurrak lagun, basurdeen arrastoei (usaina, hanka markak, ileak...) segika. Basurdea antzematen dutenean, gunea inguratu eta txakurrak askatzen dituzte basurdeari ezkutalekutik irtenarazi eta tiroa jaurtitzeko. Talde lana oso garrantzitsua da ehiza mota honetan, eta segurtasun neurriak zaintzea ere bai. Basoa ondo ezagutzera ere oso inportantea da, eta txakurrak ondo erakutsita edukitzea era bai. Horrek aurretiazko lan handia eskatzen du. Basurdea harrapatu ondoren, gibela, birrikak eta narrua analizatzera bidali behar izaten dute. Okelarekin tarteka afariak egiten dituzte, baina, batez ere, txorizoak eta hanburgesak egiteko erabiltzen dute gaur egun.

Ikuskaritza teknikoak (ITE)

Nondik datoz, zertarako dira eta ondoren zer gertatzen da?

Amaia Igartua arkitektura estudioa azkenengo 3 urtetan lanean aritu da Oñatiko eta inguruko hainbat arkitektura lanetan. Besteak beste, Eraikinen Ikuskaritza Teknikoak, etxebizitzaren barne erreformak, igogailuen instalazioak, teilatuen eta fatxaden konponketak... era guztietako birgaitzeak egiten aritu da.

4 urtez Londresen 5darchitects arkitektura bulegoan lan egin, eta birgaitzearen garrantzian sakondu ondoren, Amaia Igartua gure inguruan dabil lanak gauzatzen.

Oraingo honetan, hain bogan dugun Eraikinen Ikuskaritza Teknikoaren (edo ITE) inguruan hitz egingo dugu:

- Nondik dator eta zertarako balio du Eraikinen Ikuskaritza Teknikoak?

Behar hau Europatik datorren legediari erantzuna emateko da eta urriaren 30eko 7/2015 Errege Dekretu Legegilearen testu bateratuak erregulatzen du. Ikuskaritzen helburu nagusia, eraikinen egoerak pertsoneri arriskurik suposatzen ez diela eta eraikinetan mantentze lanak egin direla zihurtatzea da.

- Nola egiten dituzue Ikuskaritza Teknikoak?

Gure estudioaren ardurarik garrantzitsuenak, Ikuskaritza bezeroarendako baliagarria



izango den dokumentu bat izatea da. Horretarako, eraikina bere osotasunean aztertu eta leku guztietara sartu beharra dugu. Honela, eraikina bere osotasunean ulertzean, kalderen bat badago, zerk gauzatu duen baloratzea posible izan daiteke. Eraikinak liburuak bezala dira. Kapitulu bat irakurritu ezin dugu jakin zer gertatzen ari den, aldiriz, liburu guztia irakurrituz gero, nobelaren nondik norakoak jakingo ditugu.

- Ikuskaritza Teknikoak dirubiltze soil bat delako ustearen inguruan ze iritzi duzu?

Aurretik aipatu bezala, Ikuskaritzen funtsezko arrazoia, erortzeko zorian edo arrisku bat suposatzen duten eraikinei konponbide bat ematea da. Gai korapilatsua da erakin horietako asko pribatuak baitira. Gaur egunean jabetu beharrekoa honako hau da:

Gure helburua, bezeroari eraikinak mantentzen laguntzea da erarik erosoenean.

eraikinak ez dira erosi eta betirako irauten duten ondasunak. Eraikuntzek ere iraungitze data dute ez badira zaintzen. Gainera, legearen arabera, etxebizitza baten jabe garen momentutik gure betebeharra hura zaintzea da.

- Lehen aipatu duzun bezala, ze zentzutan izan daiteke baliagarria jabeentzat Ikuskaritza Teknikoaren txostena?

Ikuskaritzak, eraikinak izan ditzakeen kalteak aztertzeaz gain, irisgarritasuna eta kontsumo energetikoa ere aztertzen ditu. Ikuskaritzak gaur egun dauden kalteak eta urrengo urteetan izango dituenak azaltzen ditu. Horrela, urrengo

urteetan agertu daitezkeen kalteak aurreikusteko aukera ematen digu. Irisgarritasun analisiak, eraikinean igogailua jartzeko aukera fisikoki eta ekonomikoki aztertzen du, gainera, lortu daitezkeen dirulaguntzak ere kontuan izaten dira. Eta Ziuertagiri energetikoak energia gutxiago kontsumitu dezagun eraikinean egin daitezkeen ekintzak azaltzen ditu. Horrez gain, lan horiek eginez energia kontsumoa zenbateraino gutxitzen den aztertzen du.

- Bukatzeko, ikuskaritza egin ondoren zer gertatzen da?

Ikuskaritzak egiteaz gain gure zerbitzuen artean gremioen kudeaketa eta dirulaguntzen gestioak daude. Gure helburua bezeroari eraikinak mantentzeko dugun betebeharrak horretan laguntzea da, bide hau ahalik eta era erosoenean eginez.

Lau urtetako lan gogorraren ostean, eta Murias Taldeak emandako babesari esker, bere ametsetako bat egi bihurtzea lortu du Jon Odriozolak (Oñati, 1970); hainbat urteren ondoren Euskadiko talde bat berriz ere Euskal Herriko Itzulian ikustea. Elitera iritsita, etorkizuneko oinarriak finkatzea da orain bere helburua, luze gabe *Tour*-ean egon ahal izateko.

Hamabi urteren ondoren Euskadiren izena daraman talde bat dugu berriz ere Euskal Herriko Itzulian. Bete da zure ametsetako bat.

Bai, duda barik. Niretako amets bat zen, eta Murias taldearentzat ere bai. Eta nik uste dut euskal txirriduzale guztien ametsa ere bazela etxeko talde bat berriz ere elitean ikustea. Uste dut garrantzitsua dela guztiontzat.

Asko kostata lortutako ametsa izan da.

Hala da, bai. Zorionez, lantalde sendo bat daukat inguruan, oztopoak oztopo proiektu honetan sinistu egin duena, gogotik lan egin duena, eta horregatik iritsi gara honaino.

Zoritxarrez, errazak diren gauzak askotan guk geuk bihurtzen ditugu zail, garen modukoak garelako, eta horrek are zailagoa egiten du honelako proiektu bat aurrera ateratzea.

Baina ni oso pozik nago.



Euskadi-Murias

“Euskadiko taldea Itzulian ikusita nire ametsa bete da”

ELKARRIZKETA
JON ODRIOZOLA
EUSKADI MURIAS TALDEKO KIROL ZUZENDARIA

Gustura dago Jon Odriozola. Murias-en eskutik Euskadi taldea txirridularitzaren lehen mailara ekartzea lortu du, lau urteko lan gogorraren ondoren. Proiektua sendotu eta etorkizuneko oinarriak finkatzea da orain erronka.

Euskadi-Murias taldea hor dago. Itzulian egotea urrats handia da, eta jendea hasi da horretaz konturatzen. Gainera, errepidean ere maila ona ematen ari gara, eta, beraz, baikor nago etorkizunera begira.

Continental mailan hiru urte eman ondoren, aurten Continental Profesional mailara (UCIren bigarren maila) jauzia eman duzue. Zein da aldea?

Mundu bat dago batetik bestera. *Continental* maila ez da ia ikusi ere egiten. *Profesional* mailara igotzea oso urrats handia da, bai aurrekontu mailan (3 milioi inguruko aurrekontua dugu aurten), bai gestio mailan, bai txirridulari aldetik...

Beste mundu bat da, eta gu oso pozik gaude, ikusten dugulako, kanpoan batez ere (Frantzia, Italian...), baloratzen dutela hemen egiten ari garen lana.

Euskadi ordezkatu duen ‘euskal selekzio’ bat egitea da zure helburua, baina oraindik ez da berotasun handirik ikusten zaleen artean. Zergatik?

Bi hilabete daramatzagu Profesional mailan, eta normala ere bada. Dena den, gauzak aldatuz doaz. Hau errealitate bat da, Euskadi-Murias taldea hor dago, eta proiektu honek atearak zabalik ditu euskal txirridularitzaren alde lan egin nahi duten guztiontzat. Lehen esan dudan moduan, kanpoan oso iritzi ona dute

ETXiAN
Oñatiko inmobiliaria berria
Donostian etxea erosteko ero, aukera onenen informazioa eta laguntza
Tel.: 943 71 61 60
www.etxian.net
Etxian

Etxebizitza edo lokal bat saldu nahi duzu Oñatin?

carpinteria
GARIBAI
aroztegia
Mota guztietako zurgintza-lanak
Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • garibai@garibai-aroztegia.com
www.garibai-aroztegia.com

Euskadi-Murias taldearen inguruan, baina hemen, zoritxarrez, oso abilak gara berriketa egin eta bazterrak nahasten, baina errealitatea da Euskadi-Murias taldea hortxe dagoela.

Euskadi Fundazioak ere atera du taldea Continental mailan, Mikel Landaren eskutik. Hain zaila al da denek proiektu baten alde egitea?

Guk lau urte daramagu lanean, txirrindularitzan ikusten genuen hutsune bat betetzeko asmoz, uste dugulako Euskadik talde bat izan behar duela elitean, eta lortu dugu. Horretan ez dago dudarik.

Beraz, guk egin behar duguna da, lanean jarraitu, bide zuzenean goazelako, eta esan dudan moduan, atea zabalik ditugu elkar-lanearako, eta proiektu hau sendotzeko etorkizunera begira.

Kirol mailan, zer eman dezake Euskadi-Murias taldeak?

Lehen urtea da, eta oinak lurrean izan behar ditugu. Exijentzia maila handia izango dugu, baina jendeak pazientzia izan behar du. Inportanteena da taldea hor egotea, jendeak ikustea maillotean Euskadi, eta ikus dezala talde bat daukala, bere taldea, tropelan. Eta emaitzak etorriko dira. Denboraldi hasiera oso ona egiten ari gara, eta orain arteko karreretan *Profesional* mailako talderik onena gara.

“

Emaitzak iritsiko dira. Orain inportanteena da euskal zaleek ikustea maillotean Euskadi, eta sentitzea talde bat daukala, bere taldea, tropelean

Tourreko arduradunekin egon gara, eta ez dut zaila ikusten hara joatea, baina aurretik etxean egin behar ditugu lanak, proiektu hau sendotzeko



Odroizola pozik, taldea lehen mailara ekartzea lortu dutelako.

Etorkizuna nola ikusten duzu?. Gorago iristeko lan egingo duzula esan izan duzu.

Bidea zaila izan da, baina une honetan, egia esan, baikor nago. Orain arte Muriasek aurrera atera duen proiektua izan da, baina lan horri segida eman eta etorkizuneko proiektu sendo bat eraiki nahi bada, laguntza gehiago behar da. Guk uste dugu Euskadik derrigorrez eduki behar duela talde bat elitean, erreferentia izango dena mundu mailan, eta horretarako gauzak ondo egin behar dira, eta ahalegin horretan jarraituko dugu guk, laguntzeko prest dauden guztiekin.

Tourrean ikusiko al dugu kolore berdea?

Gure esku dago. Egon gara Tourreko arduradunekin,

eta gustura ikusiko lukete Pirinioak berriz ikurriñez eta kolore berdez, kasu honetan, betetzea. Orain arte egin dugun lana ikusita, aukera handiak izango genituzke Tourrean egoteko, ez daukat zalantzarik, baina horretarako hemen egin behar dugu lana aurretik, eta horretan ari gara, datorren urtean bertan, ahal bada, Tourrean egoteko.

Bizkaia-Durango taldearekin ere elkarlanerako hitzarmena sinatu duzue, emakumezkoen txirrindularitza sustatzeko.

Bai, Muriasek hasieratik esan zuen emakumezkoen talde bat ere osatu nahi zuela. Gure ustez Euskadik behar du emakumeen talde bat elite mailan, eta hori da Bizkaia-Durangorekin egin dugun hitzarmenaren helburua.

caravanas  oñate



• GALDARAGINTZA - CALDERERIA
Otaolui zuhaitzia, 25 • Tel.: 943 71 63 50

www.caravanasoñate.com

• BIZIKLETAK
• ERREMOLKEAK
• TXIRRINDULARITZARAKO OSAGARRIAK
Otaolui zuhaitzia, 25 • Tel.: 943 78 05 65
Atzeko kale, 32 (erakusketa)



“ OÑATIKO SAHARAREN KOMUNITATEA

“Hemen bizimodua zaila bada, pentsa basamortuan, ezerezaren erdian”

‘HERRI BAT, HAINBAT JATORRI’ EKIMENAREN BAITAN, SAHARAR HERRIAREN KULTURA, GASTRONOMIA ETA EGOERA SOZIO-POLITIKOA EZAGUTZEKO AUKERA IZANGO DUGU APIRILAREN 23AN ETA 26AN

Oñati osatzen dugun herritarron kultura eta jatorri aniztasuna aintzat hartzea, elkar ezagutzea, eta elkarbizitza osasuntsua sustatzea da Auzoko ekimenak, Gaztetxearekin batera, antolatu duen ‘Herri bat, hainbat jatorri’ egitasmoaren helburua. Martxoan Paraguaiako kultura eta gastronomia ezagutzeko aukera izan genuen, eta apirilean Saharako herria izango da protagonista.

Sahararren komunitatea berri samarra da Oñatin. Duela bost urte iritsi ziren lehenak eta gaur egun bederatzi familia bizi dira gure herrian. Den-denak *Tindouf*-eko (Aljeria) errefuxiatuen guneetatik etorriak. “Bizibide bila etorri gara, beste edozein etorkin

bezala” diote. Gustura daude gure artean. “Bai, jendea atsegina da, ondo hartzen gaitu, eta ez gara baztertuta sentitzen”.

Ilusioz ari dira prestatzen apirilaren 23ko aurkezpena eta hilaren 26ko afaria. Beraien gastronomia, kultura eta ohiturak azalduko dituzte, baina, batez ere, saharar herriak bizi duen errealitate sozio-politikoaz jardungo dute.

HERRIA ZATITUTA

Oso latza da, izan ere, sahararrek bizi duten errealitatea. Herriaren erdia (200.000 pertsona inguru) basamortuan bizi da, *Tindouf*-eko kanpalekuetan, baldintza oso gogorretan, eta beste erdia Marokok okupatutako

AFARI SAHARRARA ETA AURKEZPENA



Erdal hiztunak euskarara gerturatzea helburu duen **AUZOKO** ekimenak gaztetxearekin batera antolatu duen ‘**Herri bat, hainbat jatorri**’ egitasmoaren baitan Saharari buruzko aurkezpena eskainiko dute Oñatin bizi diren saharar familiek **apirilaren 23an** (19:00) gaztetxean. Beraien kulturaz, ohiturez eta, batez ere, egoera sozio-politikoaz hitz egingo dute.

Eta **apirilaren 26an** afari sahararra egingo da gaztetxean (21:00). Sahararren gastronomian ohikoak diren *cuscus*-a, datilak eta *zamita* bezalako jakiak dastatzeko aukera egongo da, eta tea ere ez da faltako, noski. Herritar guztiak daude gonbidatuta. Momentuan bertan eman beharko da izena (40 lagunentzako tokia egongo da) borondatearen truke.

OÑATI GARBIKETAK S.L.

- Komunitate, garaje...garbiketa integrala
- Lurren kristalizatua, dekapatua eta argizari ematea.

Olakua 17 behea, esk. / Tel.: 722 733 712
argitagarbi@hotmail.com

ARGITAGARBI

Almaraz
Inmobiliari gestioa

Tel.: 679411444
www.almaraz.info

Carmelo Pérez de Almaraz

“Gure bezeroen eskari eta beharrei erantzun nahian, etxebizitza, lokal, garaje, baserri, lursail edo pabilioi bat saldu edo alokatu nahi baduzu, dei iezaguzu”.



Hiru urte elkarlanean

Oñatin bizi diren sahararrek oso gogoan dituzte herrikideak, eta Hermansoloña taldearen bitartez, laguntza materiala bidaltzen ari dira Tindouf-eko kanpalekuetara, eta, zehazki, Mahbes herrira, bertakoak baitira Oñatin dauden saharar gehienak.

2016an hasi zen Hermansoloña eta sahararren arteko elkarlana, eta urtean hiru kargamentu (botikak, eskolarako materiala, erropak, oinetakoak, jostailuak...) bidaltzen ari dira. Tarteka, materiala batzeko kanpaina bereziak antolatzen dituzte, eta, bestela, Hermansoloñak herritarrengandik jasotako materialetik egiten dute aukeraketa. Bidalketa gastuak udalaren laguntzarekin ordaintzen dituzte. Iaz, Marokok okupatutako lurretan dauden saharar komunitateetara ere hasi ziren materiala bidaltzen.



Kanpalekuetako haurrak Oñatitik bidalitako jostailu eta eskola nahiz kirol materialarekin



lurraldean, inolako eskubide barik, alautar erregimenaren jazarpen bortitza nozitzen (miaketak, atxiloketak, torturak, kartzelaratzak...). “Itogarria da egoera. Lurralde okupatuetan bizi direnak kartzela batean bezala daude, inolako askatasunik gabe, eta, bestalde, kanpalekuetan ez dago ezer. Hemen, herri aske batean, bizimodua zaila bada, pentsa basamortuan, ezerezaren erdian” diote Oñatiko sahararrek.

Aspalditik dator saharar herriak bizi duen gatazka. Ehun urteko kolonizazioaren ondoren Espainiak Maroko eta Mauritaniaren artean banatu zuen lurraldea 1976an, nazioarteko legedia urratuz. Gero, Mauritaniak atzera egin zuen eta Marokok hartu zuen menpean Mendebaldeko Sahararen lurraldea osoa.

Hamabost urteko gerraren ostean, 1990ean Nazio Batuen Erakundeak bultzatutako bake ituna sinatu zuten Fronte Polisarioak eta Marokok. Saharar herriaren autodeterminazioarako eskubidea jasotzen zuen planak, eta 1992rako ezartzen erreferenduma egiteko data. Errola bat ere egin zen, baina errefe-



Salek Brahim saharararren margolanak

“**Basamortuaren erdian sufritzen ari da gure herria, okupatzailea gure baliabideak lapurtzen ari den bitartean**”

remduma ezin izan da egin, Marokok ez dituelako ebazpenak bete nahi, eta hainbat estaturen babesa daukalako. “Gerrarik gabe, eta bakerik gabe. Horixe da gure herriaren errealitatea gaur” diote Oñatiko sahararrek; “Basamortuaren erdian sufritzen ari den herri bat gara, okupatzaileak gure baliabideak (arrantza, fosfatoa...) modu basatian eta ez legitimoan ustiatzen dituen bitartean”.

Nazio Batuekiko konfiantza galdu dutela diote. “Hitz polit asko, bai, baina ez dute ezer egiten. Frantzia bezalako herrialdeek beto eskubidea duten bitartean, ez da soluziorik egongo”. Nazioarteko egoerak ere ez omen du laguntzen. “Gatazka berriak sortzen ari dira munduan, eta horrek fokua desbideratu egiten du, eta gainera, kanpalekuetara iristen den laguntza ere gutxitu egiten da”. Dena den, argi eta garbi esan nahi dute saharar herriaren arazoa ez dela humanitarioa, politikoa baizik.

Jende asko omen dago sahararren artean armak hartzeko gogoz. “Gogorra da, baina, behintzat, gerran geunden garaian gauza gehiago lortu genituela ikusten du jendeak. Orain, aldiz, hitzak bai, baina ekintzarik ez”.

CADELUKA
MEDITERRANEAR MODA

GILO EPPO
PLEASE

Ramon Irizar, 2
Tel. 943 08 81 84
Candeluka

COINBROKER
ASEGURU ARTEKARITZA
CORREDURIA DE SEGUROS

Arantzazu Arma Kalea, 9 • 20560 Oñati

943 089 000 | oñati@coinbroker.eus
www.gipuzkoa.coinbroker.eus

OÑATIKO EH BILDUK ANTOLATU DUEN HITZALDI ZIKLOARI HASIERA EMAN ZION ARNALDO OTEGIK MARTXOAREN 7AN. AUKERA BALIATU GENUEN BERAREKIN HITZ EGITEKO GAUR EGUNGO POLITIKAGINTZAN ALBISTE DIREN GAIEN INGURUAN.

elkarrizketa

ARNALDO OTEGI

EH Bilduko
koordinatzaile
nagusia

“Despolitizatuta ikusten dut euskal gizartea”. Rafa Diezek berriki egindako adierazpena da. Iritzi berekoa al zara?

Euskal Herria ez da irla bat, eta munduan zehar gertatzen diren hainbat fenomeno, hemen ere gertatu dira. Neoliberalismoak lortu du, nolabait, Margaret Thatcher-ek esan zuen hura; “Gizartea ez da existitzen; izaki bakoitza existitzen da”.

Hala ere, esango nuke azken bi urteotan aurre egiten ari zaiola despolitizazio horri. Guk uste dugu badela Euskal Herrian gauza bat ahaztu ezin duguna, eta zera da: hemen borroka eta erreibindikazio ezberdinak daude, baina gure ustez badago tronkala den gauza bat, eta hori da arazo nazionala, eta proiektu nazional horretan sartzen dira beste planteamendu guztiak, arlo sozialean, kulturean... Beraz, proiektu nazional askatzaile

baten aldeko apustutik etorri behar da berriz ere politikari indarra ematea.

Kataluniara enbidiaz begiratu du euskal gizarteak, baina azken hilabeteetako bilakaerak ez al du frustrazio puntu bat eragin?

Etapaz ezberdinak bizi izan ditugu Kataluniarekiko. Hasieran mesfidantzaz begiratzen genuen, gero sorpresaz, gero sekulako enbidiaz, eta orain frustrazioa pasa gara.

Nik uste dut Katalunian oraindik ez dela ezer bukatu. Prozesuak jarraitu egiten du, bere zailtasun guztiekin, eta katalanek frogatu dute bide hori egin daitekeela. Falta zaio bide horren zati bat egitea, baina gustatuko litzaidake Euskal Herrian independentismoak %47 edukitzea, eta garbi bozkatzea independentziaren alde.

Baina agerian gelditu da aldebakarreko estrategiak ere ibilbide motza daukala.

Aldebakartasuna ez da norbait aukeratzen duen zerbait. Mundu guztiak nahiko luke

prozesu hauek bilateralasunetik egitea, Eskozian bezala, baina aurrean dugun estatua ez dago horretarako prest.

Nik uste dut Kataluniak bidea erakutsi digula, eta ni horrekin geldituko nintzateke. Katalanek ikusi dute, besetak beste, nazioarteko babesaren behar dela, eta gehiengo zabalagoak ere bai, beharbada, eta guk kontuan izan behar dugu hori guztiori.

Euskal Herriak nahi badu burujabetzaren aldeko bide hori egin, eztabaida zintzoa egin behar du bere buruarekin, eta gauzak argi ipini. Hau ez da bide erraza izango, ez bilaterala, ezta unilaterala ere. Egin beharreko hausnarketa zera da: Euskal Herriak bere arazo ekonomiko, sozial eta kulturelei aurre eiteko burujabetza behar du?. Bai? Bada, adostu dezagun nola egin dugun bide hori.

Kataluniako aurrekariekin, edozein jartzen da prozesu horren buruan.

Lehen esaten ziguten, borroka armaturik gabe dena posible zela, baina orain esan dute

“Gustatuko litzaidake Euskal Herrian independentismoak %47a izatea, Katalunian bezala, eta garbi bozkatzea independentziaren alde”



demokratikoki ere ez dela posible eta, gainera, jarri diote prezioa, eta prezio oso altua: 20 urteko kartzela zigorra.

Horregatik esaten dut, hori guztiori jakinik, euskaldunok egin behar dugula eztabaida zintzoa, fribolitaterik gabe eta postuorik gabe. Eta guk uste dugu bide hori batasunetik egiten dela; hau da herri honek zatituta jarraitzen badu, askoz ere zailagoa izango da.

Posible izango da batasun hori? Beno, iraganean batzuetan posible izan zen. Oraingoan agian beste aukera bat dago. Aprobetxa dezagun.

Eusko legebiltzarrean Autogobernu Lantaldean murgilduta daude alderdiak, baina ez dirudi akordioarako biderik egon daitekeenik erabakitze eskubidearen inguruan.

Gure ustez gizartera zabaldu beharko litzateke prozesu hori, parlamentura mugatu barik. Edozein modutan, inportantea izango da komisio horretan garatzen den lana.

Eta gure galdera da: EAEko hauteskundeetan baziren hiru alderdi (PNV, EH Bildu eta Podemos) esaten zutenak herri hau nazio bat dela eta erabakitze eskubidea daukala, eta bozen ia %72a jaso zuten (parlamentuaren %76). Orduan zein da arazoa jartzeko estatus batean hori eta, beraz, zergatik ez dugu batasun hori lortuko?

Gu ahalegin horretan egongo gara, eta ziurta dezakegu dena jarriko dugula mahai gainean akordioa lortzeko.

EAJrekin Madrilerako bidea egiteko prest azaldu zarete.

Bai, eta ez dugu era tranpatian esaten. Kontua ez da hara joatea, gero esateko, ikusten, hau ez da bidea, eta modu horretan PNV eta Podemosen posizioak higitzea. Ez dugu horretarako planteatzen.



Azken hauteskunde autonomikoetan hiru alderdi ziren (PNV, EH Bildu eta Podemos) esaten zutenak herri hau nazio bat dela eta erabakitze eskubidea daukala, eta bozen ia %72 jaso baldin bazuten, zein da arazoa hori estatus berri batean jasotzeko?

Guk esaten duguna da: herri honek zer botere politiko behar du bere arazoei aurre egiteko? Eta hori sartzen da legalidade espainiarrean? Ez bada sartzen, ez dugu burua galduko. Hona itzuli eta lanean jarraitu beharko dugu, herri hau eraman ahal izateko nahi dugun helmugara.

Nazioarteak ez du eskua sartu nahi izan Kataluniako aferan, eta nolabait esan, babesa eman diote Espainiari.

Ez dut uste nazioartean egon denik Espainiaren aldeko posizioarik. Garbi izan behar dugu, Europar Batasunean estatuak daudela, eta Churchillek esan zuen bezala, estatuak ez dituzte lagunak, dituzte interesak.

Nik badakit bazirela estatu batzuk prest egon zitezkeenak Kataluniako errepublika onartzeko. Azkenean errepublika ez da proklamatu era materialean, baina nik esaten dudana da, ezker independentistak lan handia egin duela munduan, eta harreman sare zabala daukala, eta ez dut uste Espainiar estatuak duen babesa irmoa eta koherentea denik toki guztietan. Jendeak Espainiarekiko duen iritzia ez da oso ona.

Horrek ez du esan nahi independentziaren aldeko direnik, baina bai irtenbide demokratiko baten aldekoak. Orduan jarraitu behar dugu lanean.



Bihar posible balitz EAE estatu bilakatzea, ni aldekoa nintzateke, zalantza barik. Ez dut uste horrek euskal subjeto nazionala zatitzen duenik.

Urtebete da Euskal Elkargoa eratu zela ipar Euskal Herrian. Zein garrantzia ematen diozu? Sekulako garrantzia dauka. Iraultza frantsesetik hona daukagun lehen instituzioa da Lapurdi, Behenafarroa eta Zuberoa biltzen dituen, eta hori izugarria da. Uste dut bi urrats eman behar direla oraindik, baina hori beraien eritimo egingo dute. Lehenengo da, instituzioa demokratizatzea, eta jendeak bozkatu ahal izatea zuzenean (gaur egun udalen botoz eratzen da instituzioa) ipar Euskal Herriko lehendakaria aukeratzeko. Eta beste urratsa izan behar da, auto-eraketa fase horretatik erabakitze eskubidearen fasera sartzea ipar Euskal Herria ere bai.

Uste dut asko dugula ikastea ipar Euskal Herriatik, besteak beste, han lortu dutelako, Fronte Nazionala izan ezik, mundu guztia ados egotea bakearekin, presoen askatzearekin, instituzioarekin, euskararen alde...

Ezkerreko abertzaletasuna 3. indarra da ipar Euskal Herrian, eta influentzia handiako indar politiko bilakatu da, eta hori pentsaezina zen orain dela urte batzuk.

Kataluniakoa bezalako prozesu bat EAEn bakarrik abian jartzearen aldekoa zinateke?.

Bihar posible balitz EAE estatu bilakatzea, ni aldekoa nintzake. Dударik gabe. Ez dut uste horrek zatitu egiten duenik sujetua; aldiz, uste dut zati batek bide hori egiten badu, eta frogatzen badu bide horretatik jendea beste era batera bizitzea posible dela, baita arlo sozialean ere, horrek dei efektua lortuko lukeela.

Txipistin

Jatorri anitzeko haur eta nerabeen inklusioa laguntzeko programa


Azken hiru urteotan gora egin du Oñatira iritsitako 16 urtetik beherako etorkin kopuruak, eta horren aurrean Txipistin zerbitzua indartzea erabaki du udalak, hezitzaile bat gehiago, hirugarrena, kontratatuz.

Jatorri ezberdinetatik Oñatira iristen diren haur eta nerabeen integrazioan laguntzea da Txipistin programaren helburua. Izena, Txipistin, berri samarra da oraindik, baina zerbitzua bera ez. Duela hamalau urte jarri zuen martxan udaleko Euskara eta Hezkuntza sailak.

Etorkin guztien seme-alabei eskaintzen die udalak Txipistin programan parte hartzeko aukera. Eskola orduetatik kanpora ematen den zerbitzua da. Haur eta nerabeak talde txikitik batzen dira, adina eta euskara maila kontutan hartuta, eta astean ordubeteko hiru saio egiten dituzte, udalak jarritako hezitzaileen laguntzarekin, norbere kultura eta hizkuntza biziz kulturartekotasunaren bidean urratsak emanez.

BIZIPEN POSITIBOAK EUSKARAZ

Hiru helburu ditu Txipistin programak. Alde batetik, Oñatira etorritako haur eta nerabeek kaleko euskara maila egokia lortzea. Kontuan hartu behar da, herriko hizkuntza izateaz gain, haur eta gazteen artean euskararen erabilera kalean %90etik gorakoa dela.



**BESTE JATORRI
BATZUETATIK
OÑATIRA IRITSITAKO
66 NESKA-MUTIKO
ARI DIRA PARTE
HARTZEN 'TXIPISTIN'
PROGRAMAN.**

Oso inportantea da bizipen positiboak izatea euskararekin. Horregatik garrantzia handia ematen zaio euskara ikasteko bidean ludikotasunari eta jolasari Txipistin programan.

Bigarren helburua haur eta gazte etorkinei ikasketetan laguntzea da, eskola porrotari aurre egiteko. Horretarako, Txipistin programaren barruan euskara akademiko maila egokia lortzen laguntzen zaie bereziki prestatutako fitxa eta liburuak erabiliz. Horrekin batera eskolako lanetarako tarte bat ere hartzen da, etxean ezin dute eta laguntza hori jaso.

INKLUSIOA BULTZATU

Hirugarren helburua da, jatorri anitzeko haur eta gazteek beraien adineko neska-mutilekin harreman naturalak izatea. Beste modu batera esanda, gizarte kohesioa lortzea da helburua, kultur-artekotasunaren bidean pausuak ematea. Helburu horrekin, Txipistin programako gazteek ludotekako eta gaztelekuko dinamiketan parte hartzen dute.

Txipistin programan herriko ikastetxeek ere parte hartzen dute. Hiruhilean behin jarraipen bilerak egiten dituzte udaleko eta Txipistin zerbitzuko hezitzaileekin, haur bakoitzaren jarraipen zehatza eta konpartitua egiteko.

NI moda

MODA BEREZIA

Kale Barria, 12
Tel. Faxes: 943 71 62 40

CORTABARRIA
INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teletel.es

“IÑAKI AKIZU

Udaleko Hezkuntza teknikaria

“Gizarte kohesioaren ikuspegitik altxorra da Txipistin programa”



Jatorri anitzetatik Oñatira datozen haur eta nerabeek norbere

jatorrizko hizkuntza eta kultura maitatu eta bizitzeari garrantzia ematen diogu Txipistin programan, eta aldi berean erremintak eskaintzen dizkiegu kulturartekotasunaren bidetik euskara maila egokia lortu, ikasketetan aurrera egin eta herriko bizitzan naturaltasunez txertatzen joateko bakoitzak dituen interesetatik abiatuta. Jatorri anitzeko haur eta nerabeak ez ditugu zerbitzuan betikotu nahí, hori seinale txarra litzateke, azken helmuga aipatutako hiru helburuak ahal dan eta eperik laburrenean lortu dituztela ikusi eta zerbitzuaren beharrik ez dutela familiei jakinaraztea da, euren kabuz moldatzeko gaitasunak eskuratu dituztelako, momentu pozgarria da hori guretzat. Gizarte kohesioaren ikuspegitik altxorra da Txipistin programa.

6-9 URTEKO HAURRAK

Egunerokotasunari aurre egiteko eus-kara maila egokia duten haurrak daude talde honetan. Ikasketetan aurrera egiteko euskara akademikoa lantzen dute, eta beren adineko neska-mutikoekin harreman naturalak izatea sustatzen da.



25 haur dabilta talde honetan Igor Tome hezitzailearekin



25 gazte dabilta talde honetan. Orain arte Xabi Pascual izan da arduraduna eta aurrerantzean Amaia Goitia izango da

9-16 URTEKO GAZTEAK

Egunerokotasunari aurre egiteko eus-kara maila egokia duten gazteak biltzen dira talde honetan. Ikasketetan aurrera egiteko euskara akademikoa lantzen dute, eta beren adineko neska-mutikoekin harreman naturalak izatea sustatzen da.

IRITSI BERRIAK

Oñatira iritsi berriak eta euskara maila apalena duten haur eta gazteen taldea da hau. Ludikotasunetik ahozko euskara maila egokia eskuratzea, eta inklusioan pausoak ematea da talde honen helbua.



16 haur eta gazte dabilta talde honetan Maddi Txintxurreta hezitzailearekin



ARRIZABALAGA
Aroztegia



PAKITA
Altzariak

Berezaio Ind. 10
Tel. 943 78 14 64

Sta. Marina, 6
Tel. 943 78 02 21

SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIAN ENPOTRATURIKO ALTZARIAK

IRAZOLA

Okindegia

Ostiral asteburu eta jai egunetan baserriko agia, eguzteko labeon sartu

Larraña auzoa, 44 • Tel.: 943 78 25 97 • Mug.: 688 630 754

Zubillagako urbanizazioa berritzeko lanak osatuko ditu aurten udalak

» Hirugarren faseko lanak egingo dira, 240.000 euroko aurrekontuarekin



Datozen egunetan erabakiko da zein enpresak egingo dituen Zubillagako bizitegi eremua berritzeko hirugarren faseko lanak. Udalaren asmoa da obrak lehenbailehen hastea, baina Gipuzkoako Urak enpresak ere hainbat lan egin nahi ditu, saneamendu eta ur hornidura sareak hobetzeko, eta horrek atzeratu egingo du pittin bat lanen hasiera. Edozein modutan, uda aurretik hasiko direla ziurtatu digute udaleko Hiri-gintza sailean.

Ondoko planoan ikusten den moduan, hirugarren faseko lanek Zubillagako erdiguneko eremu nagusia hartuko dute; San Pedro elizaren atzealdeko jolas eremua, auzo-etxea eta 35-38 zenbakidun etxe-blokeen ingurua.



San Pedro elizaren atzealdeko jolas gunea eta 35-38 zenbakidun etxeen inguruko urbanizazioa hartuko dute fase honetako lanek

IRISGARRITASUNA HOBETU
Oinezkoen ibilbideak berriitu eta irisgarritasun baldintzetara egokitzzea da aktuzio honen helburua, bertako bizilagunen bizi-kalitatea hobetzeko.

Horretarako, auzo-etxea eta jolaslekuaren artean dagoen desnibela gairatzeko arrapala bat egokituko da, eta auzo-etxekeo sarrera ere irisgarri bihurtuko da, bertan dauden bi



> Jolas parkeko zoria berriitu eta pittin bat desplazatu egingo da



> Auzo etxetik jolaslekura dagoen desnibela gairatzeko arrapala egokituko da



> 35-38 etxeen inguruko zoladura berriitu eta aparkalekuak ordenatuko dira

Uda aurretik hasiko dira lanak. Gipuzkoako Urak enpresak ere hainbat lan egingo ditu ur eta saneamendu sarean

eskailera-mailak kendu eta arrapala egokituz. Gainera, jolas parkeko zorua berritu eta pittin bat desplazatu egingo da, ibilbidea errazteko elizaren buelta guztian.

Bestalde, 35-38 zenbakidun etxeen inguruko urbanizazioa berritu egingo da; hormigoizko zoladura berria jarri eta berdeguneak txukunduko dituzte. Gainera, etxe hauen inguruko aparkalekuak ordenatu egingo dira, eta errepide nagusiko espaloia ere berritu egingo dute, eta *bolardoak* jarriko dituzte, oinezkoak babesteko.

Sestra Ingenieritza eta Arkitectura bulegoak idatzitako proiektuaren arabera, lau hilabeteko epea aurreikusten da lan guztiak burutzeko.

AZKEN FASEA

Lan hauekin osatu egingo dira Zubillagako bizitegi eremua berritzeko proiektua. Lehen fasean (2016) Ulma Forjatik Artixa errekaen zubirainoko lanak egin ziren (145.556€, +BEZ). Iaz, Marteskua eta auzo-elkartearen inguruko urbanizazioa berritu zen (88.404€, +BEZ), eta orain, esan bezala, auzoaren erdigunean zentratuko dira lanak.

Bakardadeko Ama kalea itxita egongo da bi hilabetez

Ur hornidura sarea berritzeko lanak egin behar ditu Gipuzkoako Urak enpresak Bakardadeko Ama kalean, eta horrek eragina izango du bertako trafikoan. Hala, astelehenetik ostiralera, goizeko 8:00etatik arratsaldeko 18:00etara kalea itxita egongo da, eta Maibi aurrealdeko isletak biribilgune funtzioa beteko du, Errekalde edo Euskadi Etorbidetik datozen ibilgailuek bira eman dezaten. Herribusari ere (Ugarkalde-Errekalde-Kasablanka lineari) eragingo dio bide mozketak, eta obrak dirauen bitartean ibilbide alternatiboa osatu beharko du erdigunean.

Lan orduetatik kanpora (18:00- 8:00) eta asteburuetan zabalik egongo da Bakardadeko Ama kalea. Portu kaletik gorako trafikoari oraingoz ez dio eragingo obrak. Lanak bi hilabetez luzatuko direla aurreikusten da.



Maibi aurrealdeko isletak biribilgune funtzioa beteko du

Astelehenetik ostiralera (08:00 - 18:00) egongo da itxita kalea

Euskaltegirako irakasle bat kontratatzeke eta lan-poltsa osatzeko deialdia egin du udalak

Zatikako erretiroa eskatu duen udal Euskaltegiko langile bat ordezkatzeko irakasle bat kontratatzeke deialdia egin du udalak. Parte hartu ahal izateko, diplomatura, lizentziatura edo graduren baten jabe izatea, eta euskarako C2 maila edukitzea eskatzen da. Aukeraturako hautagaiari errelebo-kontratu egingo zaio, eta oposizioa gaintzen duten hautagaiekin lan-poltsa osatuko da. Deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren 15 laneguneko epea irekiko da izena emateko udaleko erregistroan. Udalaren webgunean (www.onati.eus) kontsultatu ahal izango dira oinarri guztiak.

Etxebizitza tasatuen ordenantza aldatu du udalak, alokairuan jarri ahal izateko, baldintzapean

Etxebizitza tasatuak arautzeko ordenantzako atal batzuk aldatzea erabaki du udalbatzak, etxe horiek alokairuan jartzeko aukera emateko helburuarekin, baina baldintzapean. Beraz, justifikatutako arrazoiaren bat dagoenean (etxearen tamaina, lan aldaketa...), etxe tasatuaren jabeak alokairuan jarri ahal izango du, baina udalaren baimenarekin beti ere, eta baldintza batzuk beteta. Hala, maizterrak ezingo du urteko 40.000 euroko diru sarrera gaintitu, elkarbizitza unitate osoa kontutan izanda. Bestalde, etxebizitzak garajea edota gordelekua tasatuak baldin baditu, hauek ere alokairuan sartuko dira. Alokairu prezioari dagokionez, gehienez 400 eurokoa (+BEZ) izango da hileko errenta, eta urteko KPI-IPC indizearekin eguneratu ahal izango da.

Urte askotan zuekin

Portu Kale 5 • Tel: 943 78 12 65 • www.mapfre.es





Harrobia ez da handituko

Harrobi jarduera mugatzeko, udalak Hiri Antolaketa Arauetan egindako aldaketak ontzat eman ditu EAEko Lurralde Antolamendurako Batzordeak

Gomiztegiko harrobia ez da handituko. Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak ontzat eman ditu udalak Oñatiko Hiri Antolaketa Arauetan egindako aldaketak. Horrenbestez, atea itxi dio enpresa ustiatzailearen harrobia handitzeko asmoari.

Gogoratu, Aridos Aloñak harrobiaren azalera bikoiztu egin nahi duela (40.000m²-ko azalera berria) Kortakogain aldera 300 metro lineal luzatuz (goiko irudiak erakusten duen moduan).

Harrobia handitzeko asmo

honen atzean dago, enpresa ustiatzaileak Eusko Jaurlaritzako Ingurumen sailarekin eta Meatzetako zuzendaritzarekin 2006an sinatutako akordioa. Bertan jasotzen da, 30-35 metroko errenkada utziko dela ustiatu gabe errepide ondoan, pantailarena egin eta inpaktoa gutxitzeko. Trukean harrobia mendebalderuntz handitu ahal izango litzateke.

KONTSERBAZIO BEREZIKO EREMUA

Kontua da, gerora, ingurumenarekin zerikusia duten udalez

gaindiko hainbat arau eta dekretu onartu direla, hala nola: Aizkorri-Aratz natur parkearen izendapena, edo Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) izendapena, besteak beste.

Eta, hain zuzen, harrobiaren handitze eremua Europako Natura 2000 Sarearen barruan dagoela ikusita, KBE bezala sailkatuta, udalak beharrezkoa ikusi du Oñatiko Antolaketa Arauetan hiru artikulua aldatzea, kontrajarriak direlako interes naturalistikoaren (flora, fauna, habitat naturala...) babesarekin.

Oñatin indarrean dauden Hiri Antolaketa Arauak 2006koak dira, eta baimendu egiten dute harrobi jarduera Gomiztegi inguruan. Orain, aldiz, udalak onartu dituen aldaketa hauekin harrobiaren ustiapena baimentzen da bakkarririk eta eskusiboki gaur egungo lurralde mugen barne.

Enpresak helegitea aurkeztu zuen udalak hartutako neurrien aurrean, baina, esan bezala, Jaurlaritzak arrazoa eman dio udalari, bide administratiboan agortuz.

ALBISTE ONA

Mikel Biain alkateak oso positiboki baloratu du Lurralde Antolamendu Batzordearen ebazpena. "Harrobia handitzeko proiektua gelditzeko udalak eta herriko hainbat kolektibok egindako lanaren emaitza da". Gogoratu, Arantzazuko auzotarek eta herriko hainbat taldek 'Arantzazu Defenda Dezagun' plataforma eratu zutela, harrobia handitzeko proiektuaren aurka.

**HARROBIAREN
USTIAPENA
BAIMENTZEN
DA BAKARRIK
ETA
ESKLUSIBOKI
GAUR EGUNGO
LURRALDE
MUGEN BARNE**

GARBIKETA ADMINISTRAZIOA ETA KONPONKETAK

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarten administrazioa
- Konponketa orokorrak



653 70 45 47

Oñati

**PINTURAS
URBIA
MARGOAK**

Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15

1.080 €ko gutxieneko pentsioa aldarrikatu du udalbatzak

Herriko pentsiodunek aurkeztutako mozioa onartu zuten EH Bildu eta EAJren udal taldeek martxo osoko bilkuran. Bost eskaera jasotzen ditu testuak. Batetik, pentsioen %0,25eko igoera hutsala ez onartzea, eta KPIaren arabera eguneratzea pentsioak, eta azken sei urteetan galdu duten %6,5eko erosalmena berreskuratzea.

Bestalde, gutxieneko pentsioak 1.080 €-tan ezartzea eskatzen da, Europako Gutun Sozialak gomendatzen duen moduan, eta EAERako Gizarte Segurantzza ezartzen ez den bitartean, 1.080 eurotako pentsiora iristeko falta den dirua Eusko Jaurlaritzak ipintzea. Gainera, pentsioak kalkulatzeko 2019. urtean indarrean jarriko den jasangarritasun faktorea baztertzea eskatzen dute. Onartutako mozioa Madril eta Gasteizeko gobernuak helaraziko zaie.

ALDERDIEN IKUSPUNTUAK

Udalbatza osatzen duten bi taldeek babestu zuten mozioa. Mikel Biain alkateak esan zuen pentsiodunak lezioa ematen ari direla, eta denoi dagokigun arazoa dela pentsioen sistema publikoa defendatzea. Biainek gaineratu zuen pentsioa dela aurrekontuetatik finantziatzen ez den prestazio sozial unibertsal bakarra, eta konponbidea badagoela, borondate politikoa egonez gero. “Tamalez, gaur bertan EAJk, PSOEek eta PPK atzera bota dute legebiltzarrean, pentsio minimoak 1.080 eurotara lau urtetan igotzeko proposamena” gaineratu zuen alkateak. “Ez da politika egiteko gaia, baina errealitatea hori da”. Politikagintzaren erdigunean pertsonak jarri behar direla gaineratu zuen Biainek.

Lourdes Idoiak (EAJ) esan zuen oportunitate politikoren gainera dagoen gaia dela, eta ez ziola EH Biduren “eraso politikoari” erantzungo. Idoiak emakume alar-guneko pentsioan jarri nahi izan zuen fokua, “diskriminazio bikoitza” nozitzen dutela salatu. “Batetik, alarguntzean pentsioa murriztu egiten zaie %50era. Eta, bestetik, garai batean soldatapeko lana egin eta gero etxeko lanetara dedikatu ziren emakumeei dagokien SOVI prestazioa kendu egiten zaie alar-guntzen direnean, emakume asko pobrezia egoerara bultzatuz”. Gizon eta emakumeen soldatetan ez ezik, pentsioetan ere ematen den arrakala salatu zuen Idoiak.



Apirilaren 16tik aurrera pentsiodunek elkarretaratzeak egiten jarraituko dute plazan (12:00)

> DIRULAGUNTZA DEIALDIAK

NAZIOARTEKO LANKIDETZARAKO DIRULAGUNTZAK

Garapen bidean dauden herrialdeetan burutzen diren elkartasun proiektuei laguntzeko 110.000 euro bideratuko ditu aurten udalak. Eskaerak aurkezteko epea **apirilaren 20an** amaituko da.

Bestalde, lankidetzaren arloan sentsibilizazioa eta hezkuntza jarduerak sustatzeko 3.000 euroko diru atala dauka udalak, eta **ekainaren 30era** arteko epea dago eskaerak aurkezteko.

Azkenik, larrialdiko edo laguntza humanitarioko proiektuetara 12.000 euro bideratuko ditu udalak. Eskaerak egiteko epea: **azaroaren 30**.

KIROL ARLOKO DIRU LAGUNTZAK

Herriko kirol taldeek antolatzen dituzten ekitaldiak sustatzeko diru laguntza deialdia egin du udalak. Bi laguntza lerro daude: 1. Kirola sustatzeko antolatzen diren ekintzak; 2. Ohiz kanpoko jarduerak. **Apirilaren 10a** da eskaerak aurkezteko azken eguna.

KULTURA ARLOKO DIRU LAGUNTZAK

Kultur elkarten jarduna eta sormen lanak sustatzeko diru laguntza deialdia abiarazi du udalak. Kultur proiektuak eta programak gauzatzeko 58.000 euro banatuko dira. Kultur sormen lanak sustatzera 12.000 euro bideratuko dira. Eskaera egiteko epea **apirilaren 16an** amaituko da.

HAUR ETA GAZTERIA SAILAREN DIRU LAGUNTZAK

Udaleko Haur eta Gazteria sailak 10.000 euro bideratuko ditu gazteen sormen lana sustatu eta urteko ekintza programak garatzen laguntzera. Irabazi asmorik gabeko gazte talde, norbanako edota familia elkarteek eskuratu ahal izango dituzte laguntza hauek. **Apirilaren 25ean** amaitzen da eskaerak egiteko epea. Informazio gehiago Gaztelekuan.

GAZTEEN EMANTZIPAZIORAKO LAGUNTZAK

18 eta 30 urte arteko gazteek eskuratu ahal izango dituzte laguntzak, baldin eta gutxienez 12 hilabeteko alokairu kontratua baldin badute. Hileko alokairu prezioaren erdia estaltzeko diru laguntza emango da, 250 euroko mugarekin. Eskatzaileen urteko diru sarrera gordina ezin da 28.000 eurotik gorakoa izan. Eskaerak egiteko epea: **urriak 12**.

Oharra: Diru laguntza deialdiak udalaren webgunean (www.onati.eus/tramiteak/dirulaguntzak) kontsulta daitezke.



Euskal komunikabide esparrua eta Finantza burujabetza aztergai

Goian aipatutako gaiak lantzeko bi hitzaldi antolatu ditu Oñatiko EH Bilduk.

» APIRILAK 11

Kultur etxean, 19:00

Gaia: 'Euskal komunikabide esparrua. Zein komunikabide publiko behar ditugu?'

Hizlaria: Jasone Agirre, EH Bilduko legebiltzarkidea

» APIRILAK 25

EH Bilduren lokalean, 19:00

Gaia: 'Finantza burujabetza'

Hizlaria: Liher Gonzalez, 'Koop 57' finantza etiko eta solidarioak taldeko kidea

1.000 lagun beharko dira ekainaren 10eko giza katean Oñatiri dagozkion bi kilometroak osatzeko

» Gure Esku Dago antolatuta, Donostia, Bilbo eta Gasteiz lotuko dituen giza katea egingo da. Altube mendatean bi kilometro betetzea da oñatiarren erronka

Erabakitze eskubideari dagokionez une erabakigarriak bizi ditugula sinetsita, erronka berria jarri du mahai gainean Gure Esku Dago dinamika, eta ez nolanhikoa gainera: Euskadiko hiru hiriburuak lotuko dituen 201,9 km.-ko giza katea osatzea.

2014an egin zen giza kateak, Durango eta Iruñea artean, 123 km. zituen, eta aurtengoak 75 gehiago izango ditu. Beraz, milaka lagun beharko dira mugari berri bat jartzeko erabakitze eskubidearen alde.

Giza katea ez da gure eskualdetik igaroko, eta oñatiarrok Altube gainera joan beharko dugu, bi kilometro osatzera, eta horretarako 1.000 pertsona inguru beharko dira.

Oñatiko GED taldea hasita dago lanean eta apirilaren 5ean zabalduko ditu izena emateko bideak. Ekainaren 10ean autobusak egongo dira Altube gainera joateko.

HERRITARRON ITUNA

Giza kateaz gain, Herritarren Ituna ere sustatu nahi du GED dinamika,

erabakitze eskubidearen alde dauden sektoreen arteko konplizitateak landuz. '2019 arrazoi erabakitze' lelopean, eskubide horren alde herritarrek dituzten arrazoiak jaso nahi dituzte; ahalik eta arrazoi gehien, ahalik eta anitzenak.

Horretarako mahai inguru eta ekitaldi ugari antolatuko dira herriz herri Oñatin apirilaren 14aren inguruan (zehaztu gabe dago oraindik) egingo da mintegi ireki eta zabala. Gaika eta arloka batuko dira arrazoi ezberdinak.



GIZA KATERAKO IZENA EMATEKO APIRILAREN 5ETIK AURRERA, OSTEGUNERO (18:30-20:30, KALE BARRIAKO LOKALEAN)

Giza katea antolatzen laguntzeko, eman izena onatiko.gure.esku.dago@gmail.com helbidean

EGUR-LAN
AROSATEGIA
LIMABAR S.A.L.
BEREZAO INDUSTRIALDEA 20560 OÑATI (GIPUZKOA)
TEL/ FAXA: 943 78 14 59 limabarsal@gmail.com
www.egur-lan.es

smk
san miguel kooperatiba
943 781 217
kale barria 8 - 20560 oñati
www.sanmiguel.coop

ELKAR HEZI, *etorkizuneko gizartea Ereiten*

Persona izaten eta elkarbizitzen ikasten. Haur eta gazte kontzienteak, kritikoak eta solidarioak hezten, gizarte eraldaketarekin konprometituak, zoriontasunaren bidean, mundu hobea sortzea helburu.



Argi: Nagore Gofi

0 urtetik

Goxotasuna
ESPERIMENTAZIOA
 Konfidantza, Estimulazio goiztiarra
 Arreta pertsonalizatua
 Segurtasuna, **IKAS KOMUNITATEA**
 Eskola baratza, Ekologia
PSIKOMOTRIZITATEA
 Malgutasuna, **PROIEKTUAK**
 Emozioak, Tertulia dialogikoak
MINDFULNESS, Zirkulazio librea
 Familien partaidetza
 Askotariko inteligentziak
 Batzorde mistoak
 Aniztasuna



BALIOAK, Ausarten kluba
 Elkarrekintza, Eleaniztasuna
 Cambridge exams, Adi lagun!
 Hezkuntza espezialista propioak
ELKARHEZI net, Ekintza osagarriak
 Liburutegi tutorizatuak, **HERRIGINTZA**
 Ekintzaletasuna, Talde elkarrengileak
 Mundura Zabalik, **BATXILERGO DUALA**
 Gizarte eragile, Proiektu errealeak
GATAZKEN PREBENTZIOARAKO EREDU DIALOGIKOA
 1x1, **ORIENTAZIOA**, Mundu ikuskerak
 Arloko errefortzua
 Gizarte eragileekin elkarlana.

18 urtera

ELKAR HEZIKo eguneroko martxa ezagutu nahi?

MAIATZAK 2,3 ETA 4
 10:00etan eta 15:00etan
 Haurtzaindegian, HH-LHn eta BHn

DEITU: 943718272 edo IDATZI: idazkaritza@elkarhezi.eus

Batxilergorako matrikula epea: MAIATZAK 2-14

► **IZASKUN LANDAIDA** / EMKUNDEko zuzendaria

“Garapenerako apustu estrategikoa da berdintasuna”



Batzokian eman zuen hitzaldia Emakundeko zuzendariak

EAJk gonbidatuta, Emakunde-ko zuzendari Izaskun Landaida izan zen Oñatin martxoaren 21ean, berdintasunaren erronkez hitz egiten.

Hasteko, gogoratu zuen Nazio Batuen Erakundeak 2030. urterako ezarriak dituen helburuetako bat dela berdintasuna, eta, beraz, herri bezala erronka handia dugula aurretik. Bere ustez ditugun bost erronka nagusiak aipatu zituen Landaidak.

Lehenengo erronka da, ulertzea eta barneratzea berdintasuna dela gure herriaren garapen jasangarrirako apustu estrategikoa. “Berdintasuna dago lotuta bikaintasunarekin” esan zuen Landaidak “besteak beste, esan nahi duelako talentu guztia aprobeztatzea. Hain herri txikia izanik, ezin dugu emakumeen talentua eta ekarpena baztertu”. Ikerketa asko omen daude erakusten dutenak, emakumeak dituzten enpresek emaitza hobek dituztela.

Bigarren erronka da, zaintza lanen sistemari behar bezala erantzutea. “Zaintza lanak banatu egin behar dira” esan zuen, eta horretarako hitz klabea da erantzukidetasuna (*corresponsabilidad*). Amatasun eta aitatasun baimenak berdintzea, enpresak beste modu batera antolatzea, eta zerbitzu egokiak aldarrikatu zituen, zaintza lanak banatu eta emakumeek denbo-

ra gehiago izan dezaten lanean eta beste esparruetan garatzeko.

Bestalde, hezkidetzarekin (*co-educación*) lanean jarraitu beharra azpimarratu zuen. “Berdintasuna ez da berez sortzen; ikasi egiten da. Beraz, sozializazioan eragina duten guztiekin (eskolak, komunikabideak eta, batez ere, familiak) lan egin behar dugu”.

Laugarren erronka, emakumeen kontrako indarkeriatik libre dagoen gizarte eraikitzea da, eta horretarako beharrezkoa da berdintasunean oinarritutako gizarte eraikitzea. “Erakundeek lan handia egin behar dute, baina gizarte osoaren inplikazioa da beharrezkoa, eta batez ere gizonena”, gaineratu zuen. Zorionez, gero eta gizon gehiago ikusten dira jokabide hauen kontra”.

Azken erronka da, barneratzea berdintasunaren gaia denoi dagokigula. “Berdintasuna gure baitan hasten da, eta denok egin dezakegu zerbait gure inguruan, gure eguneroko bizitzan erdu izanez, berdintasunaren alde”.

Zorionez, gaineratu zuen, euskal gizarte gero eta sentsibilizatuago dago eta gero eta zorrotzagoa da berdintasun gaian, M-8ko mobilizazioek erakutsi duten moduan. “Zoriondu egin behar da mugimendu feminista, diferentziak alde batera utzi eta emakume anitzak batzea lortu duelako”.



‘Juegos y apuestas en la historia de Euskal Herria’ liburua plazaratu du Azpiazuk

Euskal Herriko historian jokurako eta apustuetarako egon den ohitura eta zaletasunari buruzko liburua plazaratu du Jose Antonio Azpiazu historialariak, Txertoa argitaletxearen eskutik.

Apustuzale ospea dugu euskaldunok, eta Azpiazuk erakusten duen moduan, zaletasun hori aspaldikoa da, XVI, XVII eta XVIII. mendeetan egiten ziren apustuak eta hauen inguruan sortutako tira-bira eta auziak dokumentatu baititu liburuan. Tartean, begiak tapatuta Diortxuena tabernatik baserriraino joan zen oñatiarraren inguruko apustuaren berri ere jaso du, eta Oñatiko unibertsitateko ikasleek billarrean edo truke-jokoan aritzeko zuten ohitura ere kontatzen da liburuan.

Udako ordutegia Oñati eta Arantzazu arteko autobusean

Apirilarekin batera sartu da indarrean udako ordutegia Oñati-Arrikruz-Arantzazu autobus zerbitzuan. Lehen zerbitzua goizeko 7:30etan irtetzen da Oñatitik, eta hortik aurrera orduro, eten barik, 18:00ak arte. Arantzazutik behera goizko 8:00etan lehena, eta 19:15etan azkena.

ARRIKRUTZEKO LEHOIA BURGOSEN Arrikruzteko lehoiaren hezurdura Atapuercako ‘Museo de la Evolucion Humana’ aretoan egongo da ikusgai urrira arte. Bertako zientzilari taldeak datazio eta ADN ikerketa berriak egin ditu. Gero, azarotik hurrengo urteko otsailera Donostiako San Telmo museoan egongo da ikusgai Arrikruztean aurkitutako lehoiaren hezurdura.

Osasun produktuak, eskola materiala eta erabilitako bizikletak batzeko kanpaina

‘Mali Elkartasuna’ elkarteko kide den Joxean Larrañaga parrokoak elkartasun kanpaina jarri du abian, Mali-ko (Afrika) San elizbarrutira bidaltzeko. Osasun produktuak (bendak, gasak, tiritak, esparadrappa...), eskolarako materiala (koadernoak, boligrafoak, arkatzak, margoak...) eta erabilitako bizikletak batzea da helburua. Herriko farmazia eta paper dendetan, Hermansoloñaren lokalean edo parrokiako bulegoan utz daiteke materiala, apirilaren 14rarte.



MARTXA NORDIKOA hastapen ikastaroa

Martxa nordikoa taldean praktikatzeko hastapen ikastaroa egingo da apirilaren 21ean (10:00-13:00), San Martin autokarabana gunean. Urdin Elortzak gidatuko du ikastaroa, eta plaza mugatuak izango dira (10-15 lagun, adin muga barik). Prezioa: 20€. Izena emateko: 653717989 (Gorputzaren %90a aktibatzen duen ekintza lasaia da martxa nordikoa

Debagoieneko Gastronomia Jardunaldiak, maiatzaren 6rarte

Eskualdeko kultura, natura eta gastronomia ezagutzera ematea da mankomunitateak eta bailarako jabetxeek elkarrekin antolatu dituzten 28. Gastronomia Jardunaldien helburua. Bost jabetxeek parte hartzen dute: Oñatiko Goiko Benta, Arrasateko Hilarion eta Santa Ana, Bergarako Lasa eta Elgetako Maialde. Garaiko eta bertako produktuetan (neguko barazkiak, bildotsa, peilak...) oinarritutako menuak dastatu ahal izango ditugu prezio berezietan. Gainera, ekoizpen zentroak ezagutzeko bisitak ere antolatu dira. Ikus egitaraua QR kodean.



MATRIKULAZIO EPEA : Apirilaren 30etik maiatzaren 11ra. IRAILETIK AURRERA HASTEKO



*Txiki-Txoko
Oñatiko Haurreskola*



0-2 URTEKO

**HAURRENTZAT MAIATZAK 3
OSTEGUNA ATE IREKIAK
18:00etatik - 20:00etara**

*Askatasunez
bitzeko txokoa*

OLAKUA 19
Telf.: 943716405

Kontzejupetik



ARGITARATZAILEA: Oñatiko Udala

ZUZENDARIA: Iñigo Arregi

PUBLIZITATEA: Aratz Losada

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Aratz Losada

KOLABORATZAILEAK: Jerardo Elortza

eta Udal Euskaltegia

INPRIMATEGIA: Gertu

Tirada: 5.500 ale

Lege gordailua: SS-357/91

Posta-e: kontzejupetik@onati.eus

Publizitatea: publi@onati.eus

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa

20560 Oñati (Gipuzkoa)

Tel.: 943 78 20 72

Kontzejupetik aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

GUTUNAK

Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariako erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorleraren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g • 20560 OÑATI | Tel.:943 78 20 72 | Posta-e: kontzejupetik@onati.eus

Pentsioen aferan EAJ-PNVk ardura berezia du

Susana Altuna Ugarte (Ongizate Batzordeburua)

Ourdes Idoiak sinatzen duen eta komunikabide ezberdinetan argitaratu den gutunak Pentsio Sistema Publikoaren egoera larriaren ardura Espainiako gobernu ezberdinen bizkar jartzen du. Ez gara gu izango espainiako gobernu ezberdinak izan duten ardurarik libratuko dituen eta guk ere arduradun nagusitzat jotzen ditugu.

Dena den, pentsioen aurkako erasoak ez dira estatu mailako alderdie-tara soilik mugatzen. Ezin baitugu ahaztu EAJren papera eta ardura, estatuko aurrekontuetan PPren aliatua izan baita. Aurrekontu horiek pentsiodunak borrokarako prest jarri dituen 0,25eko igoera barne hartzen dute eta EAJren babesa gabe ezin izango ziren onartu.

Gogoratu behar dugu, gainera, EAJk eta PSEk pentsiodunen elkarrekin Eusko Legebiltzarrean 85.000 sinaduren bermearekin aurkeztu zuten legegintzako herri-ekimenaren aurka bozkatu zutela. Horrenbestez, egun Eusko Jaurlaritza kudeatzen dutenek ere badute ardura gertatzen ari den honetan.

Amaitzeko, EH Bildutik EAJri

gogorarazi nahi diogu Lakuak ez duela zertan itxaron ea arazoa Madril konpontzen duten, EAJk ahalmena eta eskumena baitu Eusko Jaurlaritzatik pentsioak osatzeko, gutxieneko pentsio duin bat ezartzetik hasi eta, hala, jasotzen diren muntak handituz.

Beraz, Urkullu ezin da Rajoyren atzean ezkutatu eta bere erantzukizunari heldu behar dio. Zeregin horretan EAJk bidelagun izango du EH Bildu pentsio osagarritzeko orduan. Baina esan behar dugu, orain arte ikusitakoaren arabera, ez dagoela gai honi lehentasuna emateko borondate politikorik. Martxoaren 22an EHBilduk legebiltzarrean aurkeztu zuen pentsio minimoa 1080 eurotara igotzeko lau urterako proposamena. EAJ, PSE eta PPren aurkako botoekin bartan behera gelditu zen proposamena.

Borondate kontua da eta lehentasunak pertsonen zuzenduriko politiketara bideratzea.

Angula ustelak

Ibai Etxebarria

Martxoaren 21ean Ainhua Intxaurren eta Igor Meltxor Oñatiko kultur etxean izan genituen erraustegiaren ustelkeria kasua esplikatzen. Diario Vasco, Eitb eta gai-

nontzekoek ezkututzen digutena edar-to asko esplikatzen ziguten. Apirilak 12 Ainhua Intxaurrendieta (GHK-ko lehendakari ohia) eta Iñaki Errazkin (Gipuzkoako ingurumen diputatu ohia) epaituko dituzte PNV-k aginte maki-la duen Euskal erregimenari aurre egiteagatik. Diru publikoa nola maneiatzen duten argitzeagatik. Datozen 35 urtetarako gipuzkoar oro zorpetuko duen erraustegia gelditzeagatik.

2013an, hauteskunde kanpainan agindu bezala, EH Bilduk 2013an erraustegiaren proiektua gelditu zuen. Urte batzuk geroago, PNV-ko agintariek mendekua hartzea erabaki dute, erabaki horren atzean egon ziren arduradun polikoetako bi auziperatuz. Ondasun pertsonaletatik 100 milioi euro eskatzen dizkiete. PNV-k ordezkatzeko duen Euskal erregimenaren mezua garbia izan da auzi honetan: beraien interesak ezin direla zalantzan jarri, eta hauen aurka egitera saiatzeko direnek garesti ordainduko dutela. AHT-a, Supersurra, Donostialdeko metroa...makro-proiektu guzti hauek betiko politiko eta enpresariak aberasten dituzte. Pastela ondo banatuta dute. Bizi osorako zorpetu nahi gaituzte. Eta gutxi balitz, kontratu horietako bakoitza gure kontu angulak afaltuz ospatzen dute. Demokrazia batetan bageunde, onartezina litzake.

ARANBURU ALTZARIAK

Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnok: 78 11 60 / 78 05 73

ESTILO GUZTETAKO ALTZARIAK

LANPARAK, TAPIZAK, KORTINAK

Aran Hernandez

Zure ETXEA eguneratu, gubonero ibertso bat ezalitz bere salmenta edota alkatari eratzeko

626 114 382

aranhernandez@aranhernandez.com

Ez dira gutxi

Aurreko idatzian salatu genuen Guardia Zibila errepresio estrategia baten parte dela. Indar okupatzaile armatu horren eskutik eman dira, besteren artean, tortura kasuak, kolonizazio militarra, hizkuntzaren eta kulturaren zapalkuntza, nazio izaeraren ukazioa eta abar. Hori guztia ez zaigu merke irteten euskal herri-tarroi. Gaztelarrek Euskal Herria (Nafarroa) militarki okupatu zutela urte asko pasatu dira -hori ezin daiteke ukatu, paradigma gaztelarraz (historia-fikzioa) ulertzen ez bada behintzat-, eta urte guzti hauetan, kolonizatzaileek beraien indar armatuak gure lurretan izan dituzte. Zenbakiek, inoiz baino logika gutxiago dute orain.

Hainbat notiziatako informazioa batuta, artikulu honetan zenbait datu aurkezten ditugu. Kontuan izan behar da, informazio hau ez zaigula eskura ematen eta gutxi gora-beherakoan ari gara. Baina kontua garbia da: Guardia Zibilak eta bestelako indar okupatzaileek, 2018. urtean Euskal Herrian jarraitzen dute. Beraien rola gure lurretan zalantzan jartzea, kritikatzeko eta, ondorioz, bertatik joateko exijitzea, krimen bat dela ulertarazi nahi digute. Horrek, historiaren ikuspegitik, inongo logika mundutarrik eta zentzurik ez duen arren.

Nafarroan 1.496, Gipuzkoan 802, Araban 485, Bizkaian 1.082, eta Iparraldean ere, muga, batzuk bai. Hori da, aurkitu ditugun azken datuen arabera, Euskal Herriko eskualdeetan banatuta, gaur egun gure herrian dagoen Guardia Zibil kopurua. Guztira, EAEn, 2.369 Guardia Zibil daude. Muralean irudikatzen den bezala, baina, indar okupatzaileen kopuru totala bestelakoa da. Guardia Zibila, Polizia Nazionala eta militarrek kontutan izanda, guztira 7.967 kide daude Euskal Herri osoan banatuta. Horietatik 3.865 Guardia Zibilak, 1.929 Polizia Nazionalak eta 2.173 Militarrek Iparraldeko informaziorik ezin izan dugu lortu, baina kontutan izatekoa eta salatzekoa iruditzen zaigu hango Polizia Frantsesaren presentzia.

Lurralde osoan barrena zabalduta, hainbat kuartel, bulego, komandantzia, itsas-postu, muga-postu, eta zerbitzu gune okupatzen dituzte guztiek. Gutxienez, Euskal Herriko 67 herritan aurkitu daitezke Guardia Zibilaren eraikinak. Bat bera ere beharrezko ikusten ez dugula jakinda, hauek zenbaki kezkarriak dira. Gipuzkoan eta Bizkaian, gainera, Guardia Zibil kantitatearen igoera bat egon dela azpimarratzekoa da.

Baina, zertarako daude oraindik hemen? Armen eta lehergailuen inspektzioa toki batzuetan; eskubidea eta askatasuna babestea; herritarren segurtasuna; portu, aireportu eta komu-

nikazio bideen zaintza; prebentzioa; aplikazio judiziala; eta abar dira beraien diskurtsoan agertzen diren aitzakiak. Guk, garbi ikusten dugu bestelakoa dela beraien presentziaren arrazoia. Euskal gizartea kontrolatu nahi dute, zapaltzailearen rola jokatu, argi eta garbi utzi nork agintzen duen lur hauetan, eta edozein altxamendu edo gatazka izanez gero, segituan eskua sartu. Bertatik bertara. Bertakoak balira bezala. Garbi geratu da hori Katalunian. Ordu gutxian, Espainiar polizia beteta kaleak, bertakoei egurra ematen eta lege inposatuak guzti ororen gainetik bermatu nahian. Efizientzia kontua da. Horrek dakarkien kostuak ez dio axola, zapalduok ordaintzen baitugu gure aurkako okupazio indarra. Eta nola ordaindu ere.

Eta nola lortzen dute bertan jarraitzea? Datuok ikusiz, historia irakurriz, herri honetan bizi dugun egoeraren irakurketa bat eginez, erraz iritsi daiteke bat egoera hau salatzea. Baina, nolatan jarraitzen dugu hau onartzen? Fan Hemendik mugimendutik, uste dugu "normalizazio" egoera batean egonkortu nahi dutela beraien presentzia. Lehen bazen erreakzioa, eta horren aurka egiteko zeuden beraiak. Orain amaitu zaie aitzakia, beste puntu batera eramanez ikuspegia. Orain beraiak dira biktimak, eta beraien burua defendatzeko hemen jarraitu beharra dute. Legitimitatea irabazi asmoz, presentziaren intentsitate jaitsi, komunikabideak erabili, gazteak kriminalizatu, kartzelaratu eta prozesu judizial zentzubakoetan sartzen dituzte. Dena da estrategia: Zapaltzailearen eraginkortasuna une oro.

Kontua, baina, ez da horretan gelditzen. Kasu horretan ere zapaltzailearen interesei men egin ez ikusten ditugu, gure herrian dauden Guardia Zibilaz gain, Euskal Herri osoan dauden bestelako indar armatu ereduak: Polizia Nazionala, Militarrek, Polizia Frantsesa, Ertzaintza eta Nafarroako Foruzaingoa. Polizia bat ezarri zaigu 130 biztanleko, hau da, 7,6 agente 1.000 biztanleko. Herri kolonizatu batek, herri okupatu batek, okupatua eta zanpatua izaten jarraitu dezan beharrezkoa.

Gure aldetik, ezin dugu kopuru hori jaisten doala eta normalizazio egoera batera bidean goazela sinistu. Indar okupatzaileek ez dute oraindik beraien helburu nagusia bete, eta hori lortu arte errepresioa eta bestelako baliabideak erabiltzen jarraituko dute. Hau ulertzea dagokigu guri, irakurketa bat egin eta onartua izan ez dadin bermatzea. Ezin dugu gure herrietan beraien rola onartu. Soilik ulertu, soilik borrokatu.



Nerabeen abuztuko udaleku itxiak, 2001 eta 2002 urtetan jaiotakoentzat

Oñatiko Udaleko Haur eta Gazteria sailak, Betti-Gotti elkartearen bitartez, Udaleku itxi hauek bideratu ditu, abuztuaren 12tik – 26ra izango dira (15 egun). Horren barruan, abuztuaren 12tik 22ra inguru **Zuhatzan** pasatuko dute (ur ekintza ugari, BTT ekintzak, eta abar egiten), eta 22tik 26ra Pirineotan, **Val de Araneko “Les” herrian** (mendi irteerak, via ferrataren bat, raftinga, eta abar egiteko aukera izango dute).

Izenematea berez 350 eurokoa da, baina Oñatiko Udalak gazteko 200 euroko diru-laguntza emango dio elkarteari, beraz gazte bakoitzari 150 euro besterik ez zaio irtengo Udaleku paregabe hauek disfrutatzeko aukera. Oñatiko udalak bere gazteek Txingudiko bailarako gazteekin hartu-emana sustatzeko helburuarekin sustatu nahi ditu Udaleku hauek, oso aberasgarria izan daitekeelakoan, eta baita gazte hauek abuztuan planik gabe ez geratzeko helburuarekin. Printzipioz 15 plaza izango ditu Oñatiko Udalak eskaintzeko moduan, Gaztelekuan izena eman beharko da, eta izenemate hurrenkeraren arabera onartuko dira eskaerak. Informazio gehiago jasotzeko Gaztelekura zuzendu.

Ludotekako aste santuko ekintza bereziak

Lehenengo asteko ekintza bereziak Foruen enparantzan eta arratsaldean izango dira, 16.30-19.30:

- Martxoak 26, Play Mass.
- Martxoak 27: Landatu eta lorontziak apaindu.
- Martxoak 28: Sormen Tailerra.

Hurrengo asteko ekintzak berriz, Foruen enparantzan, eta goizez izango dira, 10:30-13:30:

- Apirilak 3: Zirko tailerra.
- Apirilak 4: Ipuin tailerra.
- Apirilak 5: Ginkana.
- Aprilak 6: Kartoarekin sortuz tailerra.



- Arazerixan -

Gazteek etxebizitza alokatzeko udal diru laguntza eskatzeko epea zabalik dago

30 urte bitarteko gazteei zuzendutako diru laguntza da. Diru laguntzak, 18 eta 30 urte bitarteko gazteek eskatu ahal izango dituzte. Hileko alokairu prezioaren erdia estaltzeko diru laguntza emango da, muga 250 euro hilean izaki. Eskatzailea, edo bizikidetzaren unitateko kide bat gutxienez, Oñatin erroldatuta egon beharko du azken bi urteetan edo aurrez, gutxienez 10 urtetan. Bestelako informazioa www.onati.eus.

APIRILEAN...

KUBOA: [2] Ogia egitera Irazola baserrira. **ARRIKRUTZ:** [3] Espeleo-txiki. **SENDAVIVA:** [6] Sendavivara irteera. **LARRAÑA:** [7] Oñati Cup futbol txapelketa. **TOPALEKUA:** [13] Kontzertua: Arkada Social + Txua. Sarrera 8€. [14] Haziak diskoaren aurkezpena. [21] Irazan taldeak antolatuta, kabaret ikuskizuna (22:00). **SAN MARTINEN:** [21] Ludotekaren eskutik: Naturarekin jolasean



Gaztelekua kabaret bihurtuko dute

Irazan Antzerki Guneko gazteek 'Moganbo' kabareta eskainiko dute apirilaren 21ean

Musika, dantza eta antzezpena uztartzen dituen ikuskizuna eskainiko dute Irazan taldeko gazteek apirilaren 21ean, Gaztelekuan, 22:00etan.

Zirikatzailea izatea da kabaretaren ezaugarri nagusietako bat, eta Irazan taldekoek prestatu duten *Moganbo* ikuskizunak ere ez du inor epel utziko. "Jendea entretenitzeaz gain, gizartean puri-purian dauden gaiak joarrituko ditugu: itxurakeria, sentimenduak adierazteko beldurrak, fobiak (homofobia, transfobia, arrazakeria...). Zer pentsatua eman nahi diogu ikusleari, egoera horien

Txokolateixan daude salgai sarrerak (5€)

aurrean dugun jokabideaz hausnarketa egin dezan. Umorea ez da faltako, baina sakontasun handiko ikuskizuna da" adierazi digute aktore gazteek.

Sketch-ak tartekatuz, mezu berezia duten abestiak kantatu eta dantzatuko dituzte. *Lili Marleen* eta *Money Money, Money* bezalako doinu ezagunei letra jarri diete, goian aipatutako gaiak landu eta mezua indartzeko.

Gure inguruan ez dira oso ohikoak kabaretak eta, beraz, Irazan taldekoek animatu egin nahi dute jendea (12 urtetik gorako herritarrek) ikuskizun desberdin batez gozatzera.

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S. COOP

75

75 URTEZ LANBIDEA SAIATUZ
ETORKIZUNA FERRETZEN

Ate Irekien Jardunaldiak

Apirilak 14	11:00
Maiatzak 23	18:00

Eskaintza akademikoa

- Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak
- Automatizazioa eta Robotika Industriala
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produktzioaren Programazioa
- Meatronika Industriala

www.mondragon.edu/gmhz
gmhz.mgep@mondragon.edu
 943 71 21 91

IÑAKI FERNANDEZ | REALAREN INGURUKO BERRIEMAILEA 'GIPUZKOA GAUR' ATARI DIGITALEAN



Besteak beste, Santiago Bernabeu futbol zelaian lana egiteko aukera izan du aurten Iñakik. Argazkian, Realaren aurkako neurketan.

“Mendilibar ikusten dut aukerakoa Realerako”

BOKAZIO GOIZTIARREKO KIROL KAZETARIA DA IÑAKI FERNANDEZ (OÑATI, 1999). HEMERETZI URTE BESTERIK EZ, ETA DAGOENEKO LAU URTE DARAMATZA REALAREN INGURUKO ALBISTEAK ETA KRONIKAK IDAZTEN AGERKARI DIGITAL EZBERDINETAN. FUTBOLAZ EZ EZIK, TXIRRINDULARITZAZ ERE IDAZTEN DU, ETA EGUNOTAN EUSKAL HERRIKO ITZULIAREN JARRAIPENA EGITEN ARI DA. BERE IBILBIDEAZ ETA REALEAN AZKENALDIAN IZAN DIREN GORABEHEREN INGURUAN GALDETU DIOGU.

Bai Lorenek eta bai Eusebiok Realari asko eman diotela uste du Iñakik. Zoritxarrez, ordea, memoria oso motza izaten da futboleant, eta beharrezkoa zen norabide aldaketa, azken hilabeteetako bilakaera ikusita

‘Eusebiok asko eman dio Realari, baina kendu ere bai’ zenion zure azkeneko artikuluetako batean.

Bai, Eusebiok nortasuna eta joku-estilo jakin bat eman zion taldeari. Kontua da, beti gauza bera egiten baduzu, aurkariek ikasi

egiten dutela nola aurre egin.

Zerbait polita egiteko moduko taldea zeukan aurretik Realak, bai Europan, bai Kopan eta baita ligan ere, baina Eusebioren alternatibarik ezak kondenatu gaitu.

Eta Loreni buruz zer?

Ezin da ahaztu bere eskutik Real 1. mailara itzuli zela, eta azken bost urteetan hiru aldiz izan garela Europan.

Bestalde, egia da fitxaketa askorekin huts egin duela. Baina direktibaren erabateko babesa izan du,

ez du presiorik sentitu, eta, agian, erosotasunean erori da. Intentsitatea falta izan zaio.

Aperribariren lana nola baloratzen duzu?


Reala krisi ekonomiko sakonetik ateratzea lortu du eta hori dauka bere alde. Kritikatzekotan, Loreni eman dion baldintza gabeko babesa aipatuko nuke.

Jokalariren konpromiso faltaz ere hitz egiten da.

Diruak agintzen du gaur egun futboleant. Lan bera egiteagatik beste enpresa batek bi aldiz gehiago ordainduko balizu ez zinanteke joango? Koloreak eta sentimenduak galtzear daude. Xabi Prieto bezalako oso gutxi geratzen dira.

Nor jarriko zenuke entrenatzaile hurrengo urtean.

Eusebiorekin *mala-letxea* faltan bota izan dut, eta nire ustez Mendilibar izango li-tzake aukerakoa. Gainera, prentsaurrekoetan euskara ez entzutea faltan botatzen dut, eta hurrengo entrena-tzailea euskalduna izatea nahiko nuke.



> PROFILA

IÑAKI FERNANDEZ GURIDI (Oñati, 1999)

- > 19 urte
- > Ikus-entzunezkoen Komunikazioa ikasten ari da Huhezin.
- > Real eta Eibar taldeen inguruko kronikak idatzi izan ditu vavel.com atarian hiru urtez
- > Realaren jarraipena egiten du gaur egun gipuzkoagaur.eus agerkari digitalerako
- > Eibarren partiduetako estatistikak jasotzen ditu *Perform Group*-entzat



Nortasuna eta joku estilo propioa eman zion Eusebiok Realari, baina beti gauza bera egiten baduzu eta alternatibarik ez badaukazu...

Taldea indartu beharrik ikusten duzu?

Zelai erdian jokalarari on baten beharra ikusten dut, Illarrarekin batera aritzeko, eta Wilian Joserekin lehiatuko den aurrelari bat ere bai; Bautista ez dut oraindik ikusten lehen mailarako. eta Agirretxe ez dakit lehengo mailara iritsiko den.

Noiztik diharduzu Realaren jarraipena egiten?

Hamahiru urterekin hasi nintzen blog batzuetan kolaboratzen. Gero, 2014an *vavel.com* agerkarian hasi nintzen, serioago, eta azken bi urteotan *gipuzkoagaur.eus* atarian ari naiz. Realaren inguruko albisteak eta partiduetako kronikak idazten ditut. Gainera, Eibarren etxeko partiduetan estatistikak batzen ditut *Perform Group* enpresarentzat.

Partidu guztietara joaten zara?

Anoetara eta Ipuruara bai. Kanpora batzuetan. Aurten *Bernabeu, Wanda, Butarque, Cornellá, Villarreal* eta Mendizorrotzan egon naiz.

Euskal Herriko Itzuliaren jarraipena egiten ari zara egun hauetan, ezta

Bai, inguruko probetan (Itzulia, Klasika, Ordizia...), eguneko etaparen kronikak idazten dut 'Gipuzkoa Gaur' atarirako.

Aloñako Igoeran Euskal Herriko

txapela egongo da jokoan

Euskal Herriko mendi lasterketen txapelak, bakarka eta taldeka, egongo dira jokoan apirilaren 22an jokatu den XIV. Aloñako Igoeran. Bertan izango dira, beraz, Euskal Herriko mendi lasterkaririk onenak. Azken bi edizioak irabazi dituen Imanol Goñi iruñearra izango da faboritoetako bat, baina Aloñako igoera lautan irabazi duen Walter Becerra sasoi bete betean iritsiko omen da, eta, gainera, duela bi urteko arantza atera nahiko du (Goñik esprintean irabazi zion). Bestalde, euskal selekzioko kide den Hassan Ait Chaou ere lehen aldiz etorriko da Oñatira, eta ez da lehen postuetatik urruti ibiliko.



AXIER ALONSO
izan da oñatiarrik azkarrena azken urteetan

Oñatiarrei dagokienez, Axier Alonso izan da gure ordezkariarik onena azken urteetan (bi aldiz 4. eta bat 5.), eta sasoi onean iritsiko omen da. Ea aurten lortzen duen podiumean sartzea. Xabi Lete eta Iñaki Arriaran ere aurrean ibiliko dira.

Emakumezkoetan konfirmatu gabe dago oraidik azken bi irabazleak (Maite Maiora eta Oihana Kortazar) irteera puntuan izango ote diren, baina antolatzaileek esan digutenez, Euskadiko kross txapelduna (Magida Maayou marokoa) Oñatin izango da. Ikusi egin behar nola moldatzen den Aloñako erripa gogorretan. Oñatiarrei dagokienez, Saioa Arkonada eta Maite Zabaleta izan dira gure ordezkariarik onenak azken urteetan.

'ALOÑA TXIKI' ETA 'ESPELEOTXIKI' IRTEERA

Lasterketa nagusiko korrikalariak Aloñako maldetan dabilzan bitartean, Foruen plazan haurrentzako V. ALOÑA TXIKI lasterketak egingo dira, adinka, Lazarraga lorategian barrena.

Bestalde, Aloñako Igoeraren babesle nagusietako bat den Arrikrutzeko Kobak antolatuta, Espeleotxiki irteera egingo da bezperan (apirilak 21 / 15:30). Aukera bikaina Aloñako lasterketara familian datozen korrikalariak egun pasa ederra egiteko.

MENDI IRTEERA / APIRILAK 15 Pico Humion (Montes Obarenes)

Montes Obarenes-San Zadornil (Burgos) parke naturalean dagoen Humion (1473 m.) ton-torra igoko dute Aloña Mendiko mendi sailak apirilako antolatutako ibilaldian. Orbañanos herian abiatu eta mendikate osoa zeharkatuta, Frias herrian amaituko da ibilaldia. Denera 14,7 km. (+976m.) zailtasun barik. Irteera, goizeko 8etan, postetxean. Izena emateko azken eguna, apirilak 12, Aloña tabernan edo alonamendi.mendi@gmail.com. Prezioa, 10€.

UDA KIROL KANPAINA

» Apirilaren 16-17-18an egin behar dira aurreinskripzioak

Udaleko kirol zerbitzuak hasi dira Uda Kirol Kanpaina prestatzen, eta zehaztu dituzte izena emateko epeak. Hala, aurreinskripzioa apirilaren 16-17-18an egin behar da. Gero, apirilaren 19an zozketa egingo da, eta behin betiko izen ematea apirilaren 23tik 27ra egingo da, zozketan egokitutako egun eta orduan.

BI TXANDA. Aurten bi txanda bakarrik egongo dira: Ekainaren 25etik uztailaren 6ra lehenengoa, eta uztailaren 9tik 20ra bigarrena. Abuztuan ez da eskaintzarik egongo.

OSASUN JARDUERAK. Denera 22 kirol ezberdinetan aritzeko aukera egongo da uda kanpaina. Aurten, gainera, berrikuntza moduan, osasunari loturako jarduerak (K-Stretch, Yoga eta Pilates) eskainiko dira lehen aldiz. Apirilaren 9ko astean banatuko dira eskuorriak ikastetxeen bidez eskaintza osoarekin. Udalaren webgunean ere ikusgai egongo da.

KIROL MONITOREAK KONTRATATZEKO DEIALDIA

Uda kanpaina kirol monitore lanetan aritu nahi dutenek apirilaren 13a baino lehen eman behar dute izena. Udalaren webgunean (www.onati.eus) daude ikusgai oinarriak.

'Oñati Bizirik'

4. DISKOA PREST

» Herriko 12 talde eta bakarlarik parte hartu dute diskoan » Apirilaren 7an aurkeztuko dute Gaztetxean

Herriko hamabi talde, bikote ea bakarlariren artean grabatu duten *Oñati Bizirik-4* diskoa apirilaren 7an aurkeztuko dute Antixena gaztetxean, zuzeneko emanaldi batekin. Diskoan parte hartu duten ia guztiek joko dute, eta sarrerarekin (5€) batera diskoa oparitu da. Aurretik Potx eta Lotx paila-zen emanaldia (3€) egongo da 17:00etan.

Autofinantziatutako diskoa denez, gastuak murrizte aldera abestiak zuzenean grabatu dira (aurreko lanetan bezala) Antixena gaztetxean, modu xume baina duinean. Iñaki Zubia izan da sonu teknikaria.

Apirilaren 7tik aurrera herriko hainbat tabernatan (Boga, Ona, Arrano, Pako, Iturri...) eskuratu ahal izango da diskoa 4 euroren truke.

LAUGARREN DISKOA

Oñati Bizirik diskoa grabatzearen ideia Kasablankako gaztetxetik irten zen 2005ean, gaur egunera arte mantendutako helburu batekin: hasi berriak diren musika taldeei



aukera ematea beraien abestiak plazaratu eta beraien sorkuntza lana ezagutzera emateko. Horrez gain, herrian aktibo dauden taldeei ere diskoan parte hartzeko aukera luzatu izan zaie.

Autogestioan eta elkarlanean oinarritutako proiektua izan da hasieratik. Ilusio handiz egiten da eta harrera ona izaten du. Antolakuntza lanetan Gaztetxeko jendea ibiltzen da, eta grabatu izan diren abestien artean presentzia handia izan dute erreibindikazio eta kritika sozialdun kantek, gaztetxearen izaerarekin bat eginez.



<https://onatibizirik.bandcamp.com>
webgunean deskargatu daitezke orain arteko hiru diskoak.

Kasablankako gaztetxean sortu zen 'Oñati bizirik' diskoa grabatzearen ideia 2005ean

Aurreneko diskoa 2006an grabatu zen Gaztelekuan. *Patxi Katarro y Los Vagueza, Crónica, Krimen, Sospechosos, Triskantza, Drakes* eta *Kontralei* taldeek parte hartu zuten. Bigarrena 2009an grabatu zen, San Martingo gaztetxean, *Bereziak, Ez!, Drakes, Bitz, Galdu Arte* eta *KKK* taldeen abestiek. Hirugarren diskoa 2013an grabatu zen Antixena gaztetxean, eta *Ixilik, Zuen Azkena, Beneh, Obstrucción Nasal, Ander Etxaniz, Gela Berezia, Gomiztegiko Artzainak, Buru Hilketeta* eta *Aran&Laket* taldeen doinuak bildu zituen.

ZURICH
M^a del Mar Urrutia Negueruela
Motxon Kalea 5 behea
Tel/Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

HARALD LINDER
ETXETAN ERA GUZTETAKO KONPONKETAK
PERSOANAK, LERROAK, LUZ FLOKATZAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...
DISEÑATZAILA ETA MONTATZAILA
SERBIZIOAK, KOMUNITATEA ETA ASKEZ GONBILGUA
ORBITA 12 B 4 esk. - 20600 OMAZI - GIPUZKOA
695 78 91 04 - 943 04 47 77

DISKOAN PARTE HARTU DUTENAK



Utopia taldea

- > **BERTSOA** (Urko Arregi)
- > **POBRESIAK** (abesti 1)
- > **VALLS eta IZAR** (abesti 1)
- > **AITOR REGUEIRO** (abesti 1)
- > **IKER MARTINEZ** (abesti 1)
- > **POTX eta LOTX** (abesti 1)
- > **GAITZERDI** (abesti 1)
- > **HERSTURA** (abesti 1)
- > **BROKEN LEGACY** (2 abesti)
- > **ZUEN AZKENA** (3 abesti)
- > **UTOPIA** (3 abesti)
- > **TXUA** (4 abesti)



Aitor Regueiro



Valls eta Izar



Gaitzerdi



Potx eta Lotx



Broken Legacy

DISKOAREN
AURKEZPENA

Apirilak 7, larunbata
Antixena Gaztetxean
17:00 Potx eta Lotx
pailazoan saioa (3€)
18:30 Kontzertua,
(5€, sarrea+CDa)



‘Beratu’ jaialdiaren balorazio positiboa egin dute antolatzaileek

Aurrerago egingo dute irakurketa sakonagoa, baina Beratu jaialdia amaitu berritan, balorazio positiboa egin dute antolatzaileek. Askotariko musika entzuteko aukera egon da, ohikoak ez diren estiloez gozatu ahal izan du jendeak, eta hausnarketarako saioak aberatsak izan dira, Euskal Herriko musikagintzarrentzat baliagarriak izan daitezkeen ideia eta proposamen ugari irten direlako.

Aitor Tatieggi Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketako Finalean ariko da

Gipuzkoako eskolarteko txapelketako finalean ariko diren zortzi bertsolarietako bat izango da Aitor Tatieggi oñatiarra. Apirilaren 20an jokatu da finala Lasturren, bertso afari giroan. Txartelak www.berতোzale.eus atarian daude salgai hilaren 18artean.

‘LINBO PLANETA’
Haurrentzako antzerkia

APIRILAK 15, SANTA ANA, 17:00

Dejabu Panpin Laborategiak bere lan berria aurkeztuko du. Hondatutako etxe batean bakar bakarrik bizi den haur baten istorioa kontatzen du. Gerrak hondatutako etxea izan liteke, edo abandonatutako errefuxiatu kanpaleku bat. Egoera horretan bizitzen ohitu da, baina tarteka aspertu egiten da. Goiz batean, txakur bat aurkituko du eta bidaia zoragarri bati ekingo diote. Sei urtetik gorakoentzat. Sarrera: 3,5€.



ANE MERTZERIA



- Josteko zerak
- Lentzeria
- Umoen jantziak

Kale Barris, 54 OÑATI

Cartonajes Arregui, S.A.



- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

AGENDA

04

APIRILA



BERTSO AFARIA

> APIRILAK 5 /

BERTSO AFARIA GAZTETXEAN Plazatik Gaztetxera bertso afaria. Bertsolariak: A. Lizarralde, 'Pertz', Urko Arregi, Gontzal Belategi, Odei Irigoien, Antton Aizpurua eta A. Idoate 'Ondarru'. Saioa dohainik. Afaria, 6€ Gaztetxean.

HITZALDI-SOLASALDIK

> APIRILAK 13 /

SABIN ORMAZABAL PRESO POLITIKOAREN SENIDEEKIN Frantziako espetxe batean dagoen Sabin Ormazabal Sorluzeko preso politikoaren lagun eta senideekin solasaldia Gaztetxean.

> APIRILAK 20 /

FELIPE URIARTEREKIN SOLASEAN

Felipe Uriarte mendizalearekin hizketaldia eta mokautxoak jateko aukera. Bere mendikuskera eta filosofia, eta oro har bizitzarekiko duen jarraz hitz egingo du mendi gidari pasaitarrak Gaztetxean.

SAIO LINBIKOA Eneritz Furiyak

> APIRILAK 20

UDAL LIBURUTEGIAN
19:00

Eneritz Furiyak (Irun, 1993) musikaria izango da udal liburutegiak antolatzen dituen saio linbikoetako hirugarren gonbidatua.

Borja Estankona eta Rafa Rueda izan ziren aurreko bi saioetako protagonistak.

Literatura, musika eta emozioak uztartzen dira saio linbikoetan.

Musikariak hainbat kanta abestuko ditu oinarriko emozioetan (poztasuna, tristezia, beldurra...) eragiteko asmoz.

Aldi berean, musikariak bere erreferente literario eta musikalak partekatuko ditu entzuleekin. Sarrera doan.

ODOL ATERALDIA

> APIRILAK 13

Enpresagintza fakultatean, 17:00etatik 19:00etara.

KONTZERTUAK

> APIRILAK 13 / 22:30

ARCADA SOCIAL + TXUA Arrasate eta Oñatiko punk taldeen kontzertua. Sarrera 8€. Gaztelekuan

> APIRILAK 14 / 19:00

HAZIAK E.H.-ko trikitilari elkartearen 'Haziak' diskoaren aurkezpen kontzertua. Gaztelekuan

> APIRILAK 15 / 12:45

MUSIKA BANDA Musika bandaren kontzertua Santa Ana antzokian

> APIRILAK 15 / 13:00

MARA laudioko musikariak lan berria aurkeztuko du hirukote formatoan Gaztetxean

> APIRILAK 15 / 19:30

THE DALTONICS



Abesti propioak eta bertsoiak jotzen dituen Bilboko rock taldearen kontzertua Pako tabernan

> APIRILAK 21 /

HELL BEER BOYS

Goierriko punk taldearen kontzertua Gaztetxean

> APIRILAK 29 / 19:30

THE GRACE OF DIONYSUS Blues-rock musika jotzen duen Zumaia taldearen kontzertua Pako tabernan

+ INFO

Eskaneatu ezazu QR kode hau agendako deialdi guztiak ikusi ahal izateko.



BATUAK S.L.

MEKANIZATU ETA KONPONKETAK OROKORREAN
TORNO ETA FRESADORAK, ZENBAKIZKO KONTROLA

Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)
Telefonoa: 943 78 11 15 • Faxe: 943 71 82 50



HITZALDIA

> **APIRILAK 17 / 17:30**

'OSASUNA ETA JARDUERA FISIKOA' (Salud y actividad física).

Hizlaria: Oskar Carrascal, kiroldegiko zuzendaria. Pake Lekuk antolatuta, herritar guztxi irekia. Pake Lekun.

IPIIN KONTAKETA

> **APIRILAK 26 / 18:00**

IPIUINAK MARA-MARA

Oste gungun Kontalariak ekimenaren baitan, 6-9 urteko gaztetxoentzako saioa, Maider Galarzaren eskutik. Gonbidapenak hilaren 16tik aurrera. Haur liburutegian.



KALE KOLORE kale ikuskitzuna

> **APIRILAK 23**
Herriko kaleetan,
arratsaldean

Udal liburutegiak antolatutako kale ikuskizun ibiltaria, Liburuaren Nazioarteko Egunaren harira. Ikuskizun mutua da; aktoreen begirada, mugimendu eta akzioek hartuko dute hitza. Bizitzako azken urteetan dagoen bikote bat da, eta loreak landatuko dituzte, kultura haziak balira bezala, hurrengo belaunaldientzako opari gisa.

LIBURUTEGIKO BERRIENAK



Narratiba
"Zauri Bolodia"



Komikia
"Ramones"



Bidai liburua
"A dónde y cuando"



Haur liburua
"100 kontu ondo..."



Komikia
"Bereterretxeren kanthoria"



Saiakera
"Generación líquida"

MERKATU TXIKIA

- > **ALOLAIRUA.** Bikote bat alokairu bila. 677 620 909.
- > **ESTALITAKO GARAJEA** alokatzen da Zubibarra kalean. Interesatuak deitu: 605 743 764
- > **PABILIOIA ALOKAGAI EDO SALGAI** Berezaio auzoan. Harremanetarako: 677 425 822..
- > **EMAKUMEA** naiz, erizain laguntzailea, eta pertsonak zaintzeko prest nago, etxean edo ospitalean. 683456993.
- > **MUTILA** naiz, erizaintzan teknikaria. Pertsonak zaintzeko edo bestelako lanak egiteko prest nago. 683459058

GUARDIAKO FARMAZIAK

- ANDUAGA San Lorentzo 3, 943 78 21 16**
Apirilak 6, 7, 8, 16, 17, 25 eta 26. Maiatzak 4, 5 eta 6.
- IGARTUA Kale Zaharra 1, 943 78 01 22**
Apirilak 9, 10, 18, 19, 27, 28 eta 29. Maiatzak 7 eta 8.
- GARATE Kale Barria 42, 943 78 05 58**
Apirilak 1, 2, 3, 11, 12, 20, 21, 22 eta 30. Maiatzak 1, 9 eta 10.
- JULDAIN Kale Barria 6, 943 78 11 28**
Apirilak 4, 5, 13, 14, 15, 23 eta 24. Maiatzak 2 eta 3.



Bezeroen beharrei erantzuteko prest!



GUALBI
AHOLKULARITZA

- ◆ Kontabilitate administratiboa
- ◆ Fiskalitatea
- ◆ Lan-arloa
- ◆ Kontu-ikuskaritza
- ◆ Merkataritza
- ◆ Abokatuak

Euskadi Etorbidea, 6
Tif.: 943 78 16 48

email: maitane@gualbiasores.com

www.gualbiasores.com

Kale Barria (V)

> Jerardo Elortza eta Xabier Zelaia

KALE BARRIA ALDEKO MERKATARITZA, OSTALARITZA ETA ABAR

Oñatiko denda-kalerik garrantzitsuenak Kale Barria, Atzeko kalea eta inguruak izan dira historian zehar, Kale Zaharrarekin batera garai batzuetan. Oraindik ere horretan dirau goialdeko alderdi horrek, merkataritzari dago-kionean behintzat. Ostalaritza kontuetan, ordea, **dezente aldatu da azken hamarkadetan**, beheko auzoen mesedetan, taberna-arloan batez ere. Guztion inbentario zehatza egitea ezinezkoa da honelako lan batean eta gainditu egiten ditu jarrita dauzkagun mugak

Beraz, XX. eta XXI. mendetara mugatuko gara, gutxi gorabeherako sailkapena eginaz. Hauetariko denda eta negozio asko, jakina, itxi edota eskuz aldatu egin dira hainbeste denboran. **Plazatik gorantz moldatutako zerrendak dira, eta lokalen kokapena zehazten saiatu gara**, gaur eguneko numerazioa erabiliz. Kale-izenak honela laburtu ditugu: Kale Barria [KB]; Atzeko kalea [AK]; Ramon Irizar [RI]; Arantzazuko Ama [AM]; eta Martzelino Zelaia [MZ] Hutsuneak betetzen eta akatsak zuzentzen lagunduko diguzuelakoan, hara gure proposamena eta hurreraketa:

JANARIAK

a) **Fruta-dendak:** Sustrai [KB 1] / Ximona Arrizabalaga eta Maritxu Letamendi [KB 5] / San Migel kooperatiba [KB 8] / Goñirena [KB 17] / Rosa Alonso eta Juan Eiro [KB 28, AK aldetik] / Txantxiku [KB 30].

b) **Denetarik:** Lukasena [KB 2] / San Migel Kooperatiba [KB 8] / Oleaga [KB 14] / Milikua [KB 18].

c) **Okindegiak:** Lanberto Isasa; Migel Irizar eta ondorengoak [AK 14] / Aristegi-Ugartetarrak (*Eskolatxo*) [AK 16] / Egañena [KB 35].

d) **Gozoki-dendak eta pasteleriak:** Kiku [KB 7] / Txokolateixia [KB 16 lehen, KB 29 orain] / Arrazolatarrak (*Konfitteruena*) [KB 41] / (Muruamendiaraz [KB 45] / Garcia; Reizabal [KB 44].

e) **Harategiak:** Patri eta Rodrigo Mugartza [KB 2] / *Sukiatarrak*, Txarriduna [KB 8] / Carlos eta Reyes Urtaza aita-semeak, (*Kirriñena*) [KB 14] / *Bellotzatarrak*, Sebastian Lizarralde, aita; eta seme-alabak: Migel, Jaxinto, Anita eta Tomas Lizarralde lokal desberdinetan [AK, KB eta AM] / Joxe Plazaola [KB 30] / Odriozola [AM 2] / Bixain [AM].

f) **Pentsuak eta abar:** *Bellotza*, Ugarte-Lizarralde [KB 2] / Eloy Roa [KB 24] / Baldomero Díaz de Monasterioguren [KB 49].



Juanitoseneko denda eta inguruak XX. mendearen 2. hamarkadan. Maribi Arregik utzitako argazkia.

Neurdein et Cie. - Paris.

TABERNAK ETA JATETXEAK

a) **Sagardotegia:** XX. mendearen hasieran [KB 3].

b) **Bodegak:** *Geretatarrak*, Edmundo, Manuel eta ondorengoak [KB 11] / Felix Elvira [KB 17] / Hilarion Umerez eta ondorengoak [MZ 2].

c) **Tabernak:** Arrano [KB 13] / *Sukiatarrak*, Txarriduna [KB 8] / Etxeberria [KB 15] / Goñi [KB 17] / Guria [KB/ Aloña Mendi / Goiko Txurruka; El Caserío; Altxaga; Galicia [AK 22] / Gure leku; Boga [AK 26] / Iturritxo [AK 32] / Ausejo [AM / Vitoria [AM / Naparrena [KB 28 / Aitzgorri (*Torrena*) [KB 36]; Aketegi; Boise [KB 47/ Umerez [KB 47] / Andutz; Goiena [KB 46] / Cenicero; Urubil] [KB 52] / Otamendi [MZ 1].

d) **Jatetxeak:** Amaia [KB 9] / Txarriduna [KB 8] / Etxeberria, bi lekutan [KB 14 hasieran, KB 15 geroago] / Aloña Mendi [AK 18] / GoikoTxurruka eta ondorengoak: (El Caserío, Altxaga eta Galicia) [AK 22] / Iturritxo / Aitzgorri (*Torrena*) / Andutz; Goiena [KB 46] / Cenicero eta Urubil [KB 52].

JANTZIAK

a) **Arropa-dendak:** Etxeberria (*Santosena*) [KB / Marku, [KB 6 lehen, KB 28 orain] / Ni moda [RI 2 lehen, KB 12 orain] /

Klau [AK 6] / Candeluka [RI 2] / Baio [AK z/g] / Zubiagirre (*Pullangua*) [KB 20] / Rita Enparantza; Ene Bada [KB 22A] / Balma [KB 55] / Lantzen [KB 57] / Urrutia (emakumeak eta gizakumeak) [KB 54] / Chic [KB 54].

b) **Jostunak:** Teofilo Letamendi [KB 5] / Juan Arrue [KB 7] / Eugenio eta Angel Aranguren [KB 16] / Manuel Quelle; Juan Quelle [AK 13] / Demetrio Iriarte [AK 26].

OINETAKOAK

a) **Zapatariak:** Esteban Oñate [KB 3] / Rodrigo Astigarra-ga [KB 7] / Nikolas Ibarrondo [KB 22] / Kaio eta Jabier Urze-lai; Patxi (*Kantoi*) [KB 30].

b) **Zapata-dendak:** Klau [AK 6] / Gabino Olalde eta ondorengoak, (*Sillero*) [KB 47 lehen, KB 38 orain] / Aldasoro; Ira-mira [KB 44].

c) **Espartinak (alpargatak):** Karlos Agirrebengoa [KB 21] / Gabino Olalde eta ondorengoak (*Sillero*) [KB 47 lehen, KB 38 orain].

ILE-APAINDEGIAK

a) **Emakumeenak:** Ana Mari eta Tere Letamendi [KB 2] / Mari Jose Jauregialtzo [AK 2] / Juli Arregi (*Makalena*) [RI 23] / Valeska Mager [RI 23] / Izaskun Aldanondo (*Sesiñena*) [AK 10] / Isabel Arabaolaza [AK 13] / Sabina Igartua [KB 51].

b) **Gizakumeenak:** Karlos eta Joxe Agirrebengoa [KB 21] / Aldanondo (*Sesiñena*) [AK z/g] / Tiburtzio Mendizabal [KB 39] / Fr. Txintxurreta (*Goixenetxe*) [KB 28, AK aldetik] / Juan Uri-betxeberria (Zelaa) [KB 45] / Julian Olalde (*Sillero*) [KB 47].

ITURKINAK

Azpiazutarrak, aita- semeak [KB 19] / Sebastian Etxeberria (*Korrio*) [KB 44].

ERLOJU- ETA BITXI-DENDAK

Zubiaga [KB 18] / Gómez [KB 32] / Aranburu [KB 55].

ARGAZKI DENDAK

Jose Luis Plazaola eta semea [KB 31 lehen, KB 21 orain] / Jon Arzuaga eta [KB 28] / Jon Ander Arzuaga [AK 5] / Migel Anjel eta Jesus Mari Arzuaga [KB 50].

Txarriduna taberna eta jatetxea itxi zuten urtean.
Dorita Sukiak utzitako argazkia.

OPTIKAK

Plazaola [KB 29] / Itziar [KB 32].

BANKUAK ETA AURREZKI-KUTXAK

a) **Bankuak:** Banco San Sebastián / Banco Santander [KB 1] / Banco Vizcaya [KB 24].

b) **Aurrezki Kutxak:** Caja Laboral [KB 3] / Gipuzkoako Aurrezki Kutxa [KB 21; Kutxa-Kutxabank [KB 2].

BIDAIA-AGENTZIAK

Eroski [KB 24] / Halcon [KB 41] / Zafiro Tours [KB 51].

Ez dugu gaurkoan tokirik beste hainbat denda eta zerbitzu aipatzeko: farmaziak, belar-dendak, lantzeria-mertzieriak, kirol-dendak, drogeriak, paper- eta liburu-dendak, opariak eta jos-tailuak, estankoak, elkarteak, sindikatuak, tailerrak, lantegiak eta abar luzea. Hurrengo batean beharko du.



J.L. Plazaola, 1972


TABERNA • JATETXEA
Bidebarrieta 6
Tel.: 943 71 62 96
20560 OÑATI

FAGOR
INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA





ITTEN BAT

(*) Itten: arrastua, pistia

KONTU KONTARI

Sorgiñerrekan

Arantzazuko auzotar batek ez ei xuan sorgiñetan sinisketan eta, *Sorgiñerreka*¹ izena hortik datorrela dixue. Behin *Sorgiñerrekan* agertu xakuan, “**hiru milla eta...ez gaizela², baiña bagaittuk, hiru milla eta bostehun hamen gaittuk!**” Eta sorgiñak urten, eta raaa! Eta hurrengo goizian txapela galduta etxian agertu zuan. Arenduikua ei zuan mutil hori.

Eta kustiñua, “**bagai³zela, baiña ez gaizela, baiña bagaittuk, hiru milla eta bostehun hamen gaittuk!**” Eta hori entzun ebenian e, mekaguen, larrittu dok! Txapela eskuetan, eta txapela galduta aillegau ei zuan etxera. Eta hurrengo goizian:

—*Nora hoia ta... hain goiz ta..?* —“*Txapela galdu ñuan Sorgiñerrekan, urten xostain sorgin pilla batek eta... ez gaizela, baiña bagaittuk, hiru milla eta bostehun hamen gaittuk!*” gaiñetik kendu ezinka, isildu barik nitxuan hareik.

Hurrengo goizian fan ei zuan sorgiñok egon ziran lekura

eta, han ez ei xakuan, latatxo bat, eta olixo apurren bat zerekin, trapu zahartxo batekin, eta kitto, sorgiñak falta!

Baiña txapela topau ei xuan, han ei xakuan.



¹ Arantzazu auzuan, Azpilleta eta Albitxurizabal baserrixen artian doiana *Arantzazu* errekiarekin bat eign arte.

² gariela = garela

³ bagariela = bagarela

Itturrixa: Sinforoso Madinabeitia. Urruxolako errotakua, 1918-2013. *Ahotsak.com*, edo, *Oñatiko euskeria* liburuko CDan, Urruxola. Moldautu.

BILLATU BERBA HONEIN ANTONIMUAK

- | | |
|------------------------|---------------------|
| 1. Goixan | A. Barrenian |
| 2. Gaiñian | B. Aparte, urrin |
| 3. Goixenian | C. Aldapan, erripan |
| 4. Aurrian | D. Ezkutuan, atzian |
| 5. Parian | E. Eskuman |
| 6. Urrin | F. Azpixan |
| 7. Aurrian | G. Atzian |
| 8. Ezkerrian | H. Hurrian |
| 9. Launian | I. Behian |
| 10. Aldamenian, albuan | J. Ostian |

ESAERA ZAHARRAK LOTU, EZAGUTU ETA EBALI

- | | |
|----------------------------------|--------------------|
| 1. Zelako egurra | A. Nik sinistu ez! |
| 2. Sutara arrimau eta berotu ez? | B. alkarren zordun |
| 3. Esku bakarrak ezin dau | C. halako ezpala |
| 4. Danok gara | D. biharra! |
| 5. Eskolarik onena, | E. txalorik jo |



Oñati aldeko ikuspegixa 1900 inguruan

Beste iñoiz be azaldu izan dittugu antxiñako fotografixen atal honetan gure herriko bista zaharrak. Baiña gaurko hau barrixa dogu. Beasaingo **Fernando Labordek** ekarri dau udal artxibora eta guri **Izar Salaberri** artxibozaiñaren bittartez heldu xaku. Argazkixa Fernandoren aittajaunak, **Feliziano Laborde Urretzarazuk**, ataratakua da. Feliziano antzuolarra zan jai-xotzez, baiña Tolosan urte batzuetan tipografo moduan lanian jardun eta gero, **Oñatira etorri zan Garaiñeko pospolo-lantegira**, berau itxi baiño lehentxuago. Orduan atarako eben Altamira aldetik gure herriko fotografixia. Noizkua dan zihatx samar erabagi leike agerketan diran eraikuntza batzuk eta falta diran beste batzuk kontuan izanda: **1899-1900 ingurukua**. Hona, hori pent-sau eragitten doskuen arrazoiak:

- Garaiñeko **pospolo-fabrika barrixa** egin barik eguen artian. Arboledako malatu onduan, gaur egunian zutik jarraiketan dauen pabelloi hori 1901ekoa da. Ezaguna bihurtu zan 1918xan, **Eusko Ikaskuntzaren I. Kongresuko** ekintza eta ikuskizun askotarako **areto haundi** izateko egokittu euenian.

- Orain dala urte gutxi Olalde baserrixaren aurrian eretsitako **Pilar Enea** etxia 1900 inguruan egin zan **Jose Elorza Altube** industrialarendako **Kamiño-gaiña** izeneko parajian, Kurtzeko Asensio Aiaituiren lur-saillak erosi ondoren. Pepe Elorzaren lehenengo emaztia Pilar Etxaluze zan eta horregatik jarriko otsan izen hori. Argazki honetan orduantxe jasoten diharduela ikusten da. 1936ko gerria baiño lehentxuago hasi ziran egitten onduan **Loyola** tokolate-fabrikia.

- San Juan kaliaren eta Etxebarrialde baserrixaren artian eraiki zan Arkauztarren palaziotxua be, **Goizeko Izarra**, egitteko dago, baiña horretarako sailla hesittuta daguela emuten dau. Goribar auzoko Antzoko baserri parian laister jasoko ziran **Aloña alde** eta **Ibai ondo** izeneko Ginea-Elorzatarren txalet politak be eztira agiri.

Apur bat erreparau ezkeru, **beste xehetasun interesante batzuk** be eskintten dosku fotografixiak: **plaza nagusi aldia**, merkau barik eta pelotaleku ondoko arbolekin; aspaldiko **San Migel parrokixia** eta egin barri zan **agustiñuen komentua eta elizia**, gerotxuago botako zan lehenengo kanpantorriarekin; herriko ospittala, **unibersidadia** barriztau barik eta haruntzatxuago, **Gorriñetxe**, ospittaleko gaixo kutsakorrak aparte eukitteko lekua; **Santa Anako komentua eta ortuak**, hormaz inguratuta, eta **San Juan kaleko etxepillatxua** atzetik ikusitta; kanponsaturako bidia arbola artian, **Aingeru Guardako santutxua** eta **Etxebarrialde baserrixa**; **Garaiñeko pospolo-fabrika zaharra** tximinixa luziarekin eta **Arrazolatarren kurtiderixia**; zenbat soro eguen orduan **kaleetik hurrian**, Ibarra, Goribar eta Torrealde; eta beste hainbat gauza.

J. E.

Milla esker Fernando Laborderi eta Izar Salaberri artxibozaiñari argazkixaren barri emutiarren, eta Xabier Zelaiari argibide batzuk samurketiagatik.

Oharra: fan dan hilleko fotografixa zaharran ezkeben beheko illaran agiri dan seigarren ikasliaren izenik jarri: **Iñazio Madina** da, Atzeko kalekua; eta bigarren illarako lehenengua ezta **Luis Zubia**, **Xanti Zubia** baiño.

 **ULMA** GARA

Gara

ULMA GARA, OÑATI GARA

iragana, oraina eta etorkizuna elkarrekin